

**JOSEBA SARRIONANDIA**

*Moroak gara
behelaino artean?
saiakerari buruzko
elkarrizketa*

Mendebaldeko Sahara

Gerra arriskuaren eta erreferendum nahiaren artean

Larrun

Nekazaritza biologikoaren ehun urteko aitzindariak

Maite Gurrutxaga:

«Ilustratzaileak ere kontatu egiten du»

Herri prentsa ereduak

Goiena, Hitza eta Hernaniko Kronika

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Estiballesen eguna eta txapelketaren biharamuna


EHUN URTE IRUDITAN

Euskal gizartearen memoria grafikoan barrena bidaia aparta

Hirugarren liburua

urtarrilaren
2an

zure kioskoan



II. Errepublikaren aldarrikapena, gerra piztea, lehenengo Eusko Jaurlaritza, erbesterratu oldeak, fronteak, bonbardaketak, kontzentrazio eremuak, kartzelak... Gerraren bilakaera tragikoaren laburpen kronologikoa.

GARArekin + 11,95 € soilik



Lehenengo eta bigarren liburuak lortzerik izan ez bazenuen, <http://denda.gara.net> helbidean edota, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:00etara, 943 316 999 telefonora deituz eskura ditzakezu.

Hurrengo emanaldia
eta azkena:
otsailaren 4an





Azaleko argazkia:

PAMIELA (MOROAK

GARA BEHELAINO

ARTEAN?

SAIAKERAREN AZALA)

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskulna. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



gizarte
kutxa
zugandik zuzana



• **NON ZER** •

2010eko abenduaren 26a, 2.258. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Txuma Murugarren:** «Erromaren gainbehera da hau!». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Herri prentsa.** Hiru agerkari, eredu bana. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 5

Pertsonaia

- **Maite Gurrutxaga:** «Zintzotasuna bilatzen dut ilustrazioan». UXUE ALBERDI / 10

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 15
- **Ttakun (h)errenka** Inozenteen egun luze-luze bat. J. L. PADRÓN / 16
- **Teknologia berriak eta zakurraren putza.** ENEKO OLASAGASTI / 17
- **Hiruko txikian** Traktore-bideak. JOXEMARI OSTOLAZA / 17
- **Urrutiko iraultzak.** AITOR ZABALETA / 18
- **Txandan** Globalizazioa. JOSU AMEZAGA / 18
- **Zirtak** Lagun bat. ANGEL ERRO / 19
- **Bertso berriak** Mikel Laboari jarriak. ERIKA LAGOMA, BEÑAT GAZTELUMENDI / 20

Erdiko kaiera

- **Joseba Sarrionandia:** «Zalantzan ipini nahi dut normalizazioaren ideia». MIXEL ETCHEVERRY / 21
- **Bizkaiko Bertsolari Txapelketa.** Maila oneko finalean Arkaitz Estiballes koska bat gorago. MIREN IBARLUZEA / 26
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Mendebaldeko Sahara.** Marokok «terrorismoa» du nahiago erreferenduma baino. MIKEL ASURMENDI / 39
- **BBVA eta Amerika.** Paradisu zaharrak inperio berriarentzat. DANIEL UDALAITZ / 44
- **Izarbeibarko euskara.** Galdutako euskalkia berreskuratu nahian. SAIOA LABAKA / 46
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 48

Azkena

- **Amenzaleak.** JOSE IGNAZIO ANSORENA / 50

OHARRA

Gabonak direla-eta, datorren astean ez da ARGIA kaleratuko. Urtarrilaren 9an itzuliko gara. Bitartean, zorionak eta urte berri on!

“Erromaren gainbehera da hau!”

Txuma Murugarren | Sasoi ilunak

B alde guztiek ote daukate euren A aldea?

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Oreretar bat Sopuertan... Gora periferia!

Periferia gogorrena da hau. Ikuspuntuaren arabera, lehen edo azken lubakian gauden arroztasunaren aurkako infanteria gara.

Ez al zinen B aldeko kantaria?

Betidanik eta halabeharrez nabil nire sentsibiltatearekin bat egiten duen bide okerrean.

Halabeharrez? Euskaldunoi galtzaileak gustatzen zaizkigu-eta!

Gure burua galtzailetzat daukagulako, etengabe ari garelako gure burua inguruko muntroekin konparatzen. Ez dugu txikiak garela ikusi nahi, ez gara ohitu txikiak izaten, eta akonplejatuta gaude.

Herri honetan irabazleak dira akonplejatuak.

Txikiaren miseriari ihes egiteko zortea izan duenari ez zaio barkatzen. Oso zitalak gara tropatik ateratzen den gudariarekin.

Nahiago ditugu “kantu arantxadunak, bihozgabeak, kantu zitalak, inork maite ez dituenak, hondamendi batetik erreskatatuak”... Ederra literatura!

Alde ilunekoak gara, inork maite ez gaituenak, eta minduta gaude, hemen gaudelako, gela ilun honetan, gonbidatuen behin-behinekotasunez... Futbolariak ere behar izaten dute literatura hurrengo partidari buruz hitz egiteko.

Halaxe zabiltzate, futbolariak futbolaz nola, zuen diskoei buruz hizketan.

Gure diskoak saldu eta ezagutarazi behar

ditugula sinetsita bizi gara, gure produktuak jendearentzat ezinbestekoak direla, mundua salbatuko dutela. Baina handitxo naiz jada ezer espero izateko. Are gehiago, nire profesio amateur hau ez zait gehiegi gustatzen.

Segi autoflagelazioan!

Diskoa argitaratzear zela, bankuari mailegua eskatuko niola pentsatu nuen, diskoa erosi eta goitik behera birrintzeko. Ez duzu uste nirea autoflagelazioa baino larriagoa dela?

Hau dena antzerkia dela ulertu dudanetik...

Arte guztiek dute antzerki eta exhibizionismo. Noiz konturatuko dira psikiatrak sor-kuntzara dedikatzen garenak oso gaixorik gaudela?

Herriak Zesarri berea ematen dionean, agian?

Plazan kontzertua egonda ere jendeak nahiago du pareko tabernan edaten eta ostatuko musika entzuten egon. Bost axola zaio oholtza gaineak zer esan nahi duen. Krisi ekonomikoa baino larriagoa da gure krisi etiko eta moral. Erromaren gainbehera da hau!

Eta zu, hala ere, XXI. mendean diskoak argitaratzen.

Ez dugulako jendearengana heltzeko formula hoberik topatu. Internet arrotza zaigu, ez gara fidatzen, iraganarekin maiteminduta gaude, eta XXI. mendean ere, sortzea da barruan ditugun zauriak ez zornatzeko bide bakarra. ■

• ASTERKO GAIA •

Herri prentsa

Hiru agerkari, eredu bana

Euri asko egin du 1988. urtean Arrasate Euskaldun Dezagun euskara elkarteak Arrasate Press aldizkaria abian jarri zuenetik. Perretxikoak bezala ugaltu ziren herri prentsako aleak. Bakoitzak bere bidea egin du eta badago aldea proiektu batetik bestera. Herri prentsaren hiru adibide aukeratu ditugu eta haien ereduak azaldu: hamar urte bete dituen *Hernaniko Kronika* egunkaria, beste hainbeste urte bete dituen Debagoienako *Goiena* agerkaria, eta hainbat eskualdetan tokia duen *Hitza*.

ONINTZA IRURETA AZKUNE



Goian, ezkerrean,
Hitzaren aldeko
kanpaina
Azpeitian.
Eskuinean,
*Hernaniko
Kronika*
langileak 10.
urteurreneko
kamisetekin.
Behean, *Goienako*
langileak 10.
urteurreneko
ekitaldian umore
onez.

Hernaniko Kronika

Auzoko azken txokoko informazioa

HERNANIKO KRONIKA 2000. urtean sortu zuen herriko Dobera Euskara Elkartek. Aldizkaria ala egunkaria izango zen eztabaidatu zuten eta egunerokoaren aldeko apustua egin zuten. Hala, astean bost egunez A3 formatuko orria publikatzen hasi ziren. Gaur egun, astelehenetik ostiralera orri bat, eta larunbat eta igandetan gutxienez zortzi orriko bana egiten dute. Etxe guztietako postontzietan *Kronika* egunero banatzea oso garestia litzateke, eta beraz, gainerako egunkariak saltzen diren tokietan dago, alegia, kiosko, okindegi eta liburu-dendetan. Hala adierazi digu Eñaut Agirre kazetariak: “Egunero beste periodikoen ondoan jartzen zara eta jendeak hartzen zaitu edo ez. Termometro lana egiten du, hartzen duenak interesa daukalako hartzen du”. *Kronika* doan banatzen da, eta zenbait jende, beste egunkaririk edo ogirik erosi gabe *Kronika* bila gerturatzten da kioskora edo okindegira. Astegunetan 4.000 ale banatzen dira eta asteburuetan gehiexego, 4.500 inguru. Hernanik 19.500 bat biztanle eta 7.000 etxe ditu, eta *Hernaniko Kronika* ale bakoitza hiru-lau pertsonak irakurtzen dutela kalkulatuta dago, hau da, 12.000-15.000 irakurle ditu egunero.

Egunkaria Hernanin banatzen da, baina Goizueta eta Arano herri nafarretara ere iristen da. Astigarragako Ergobi auzoan ere jasotzen dute, eta okinari esker, Urnietako hainbat tokitara ere heltzen da. Dena den, ez da haien asmoa eskualdera zabaltzea: “Herri batzuen artekoak harreman naturalak dira, Astigarragara eta Aranora festetara beti joan izan da hernaniarra. Hedatze batzuk intentsioz egiten ditugu eta beste batzuetan tirada zabaltzeko eskatu egin izan digute”. Esate baterako, Astigarragako kultur etxeak egitaraua bidaltzen du *Kronika* eta hilean behin edo argitaratzen dute. Bestetik, Buruntzaldeko Euskara Batzordeak egiten dituen kanpainak zabaltzeko bestelako hedabiderik ez dagoenez Astigarragan, *Hernaniko Kronika*



Astegunetan 4.000 ale banatzen dira eta asteburuetan 4.500 inguru. Ale bakoitza hiru-lau pertsonak irakurtzen dutela kalkulatuta dago, hau da, 12.000-15.000 irakurle ditu egunero, 19.500 biztanleko herrian

Astigarragara ere hedatzen da kanpaina garaietan. *Kronika*ko kideek argi dute, ordea: “Eskualdeak ez du lehentasunik. Jendeak badauka informazio globala eta behar duena gertuko informazioa da, bere auzoko azken txokoan gertatu den hori ematea nahi du. Eskualdeko hedabideak ez du logikarik baldin eta herriko auzoko elkarteko hori galtzen baldin badugu”.

Erdaldunak ere irakurle

Herrian zenbat euskaldun diren galdetu diegu langileei, irakurle potentzialak irudikatzen dituzte. Bada, argitu digute erdaldunek ere irakurtzen dutela egunkaria. Erdaldunek euskaraz? “Egunkariaren lehenengo helburua informazioa ematea da eta bigarren helburua euskararen normalizazioan tresna izatea. Erdaldunek ere *Kronika* hartzen dute, argazkiak, eskelak eta zerbitzuak —goardiako farmazia zein den, adibidez— begiratzen dituzte. Inoiz euskaraz irakurtzen ez den etxean ere *Kronika* badago. Gure merkatua herri osoa da”.

300.000 euroko aurrekontua

Zazpi langile ari dira *Hernaniko Kronikan*; administrazioan eta publizitatean hiru eta kazetari lanetan beste hiru. Zazpigarrenak ordukako lana egiten du egunkaria inprimatzeko. *Hernaniko Kronika* Dobera Euskara Elkartek argitaratzen du. “Erabaki potoloak” euskara elkarteko zuzendaritzan hartzen dira. Zuzendaritzan *Kronika*ko langile bat dago; orain, Eñaut Agirre kazetaria. Eguneroko kudeaketa egunkariako langileen esku dago.

2010ean 300.000 euroko aurrekontua izan du. %55 autofinantzatua da, horren %80 inguru publizitatearen bidez (iragarkiak eta eskelak, besteak beste) lortzen dute, eta gainerakoak borondatezko ekarpenak dira (Dobera-*Kronika*ko bazkideak tarteko). Diru-sarreraren %45 Udalak (erdia), Foru Aldundiak (laurdena) eta Eusko Jaurlaritzak (laurdena) emandakoa da.

Goiena

Kazetari multimediak jomuga

DUELA 22 URTE *Arrasate Press* aldizkaria abiatu zen Gipuzkoako Debagoiena bailarako Arrasate herrian. Euskal Herriko herri prentsaren lehen alea izan zen. Horren ondotik etorri ziren hainbat eta hainbat astekari, hamabostekari eta hilabetekari, Euskal Herrian, eta baita Debagoiena eskualdean bertan ere. Debagoienako ia herri guztiek –bailarakoak dira Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Antzuola, Elgeta eta Gatzaga. Aramaio arabarra ere Goienaren barruan dago– sortu zuten aldizkaria eta bakoitza bere aldetik ibili zen 2000. urtera arte. Bergarako eta Arrasateko euskara elkarteek eskualdeko hedabideak bateratze bidean jartzeko proposamena luzatu zuten, batik bat, bi arrazoi kontuan hartuz: batetik, herriko aldizkarigintzatik eskualdeko egunkariaren logikarako jauzia ematea. Bestetik, ordurako baziren Arrasaten eta Bergaran telebista bana, eta horien mantenu-zama kontuan hartuta telebista proiektu bakarra egitea proposatu zen.

2000ko abenduaren 1ean argitaratu zen *Goienkariaren* lehenengo zenbakia, egunkari formatukoa (A3 neurrikoa), baina astean behin argitaratzen zena. Horrekin batera, aurrez herri gehienek zeukaten aldizkaria ere banatzen zen. 2010eko bukaerara egingo dugu jauzia orain. Gaur egun, *Goiena* du izena astean bitan argitaratzen den egunkari formatuko agerkariak. Ostiraletan bailara osora banatzen da doan, etxeko postontzietan 20.000 ale utziz. Astelehenetan produktu bera banatzen da, baina ez da doakoa, urtean 38 euroko harpidetza ordaintzen dutenek etxean jasotzen dute eta kioskoan ere salgai egoten da. Tirada 5.000 alekoa da. Duela hainbat urte herrietako euskara elkarteek sortutako aldizkariak ez daude jada. Horixe izan da apustua, herri bakoitzak bere aldizkaria izan beharrean, indarrak batu eta eskualdeko prentsa egitea.



Euskara elkarteek sortutako herriko herriko aldizkariaren tokian Goiena enpresa kooperatiba dago orain, eskualdeko tamaina hartu eta multimedia proiektu bihurtu den ia 50 langileko enpresa kooperatiba

Goiena multimedia

Hasierako *Goienkaria* aste-karitik gaur eguneko *Goiena* astean bikora hainbat aldaketa izan da. Besteren artean eskualdeko eta herriko informazioaren trataera periodistikoa egokitu behar izan dute. Errezeloak izan ziren, eskualdeko agerkaria sortuz gero herriko informazioa galduko ote zen eta herri txikiak irabazteko baino galtzeko ez ote zuten. Eneko

Azkarate Goienako Eduki zuzendariaren ustez, herri handienak eskuzabalak izan ziren herri txikiak eginez. *Goienan* bi atal ederki nabarmentzen dira; bata, eskualdeko informazio orokorra lantzen duena, eta bestea, herriz herrikoa jorratzen duena, Azkaratek dioten moduan, “jendeak herrikoa baloratzen segitzen baitu”.

Papereko *Goienaz* ari gara, baina Goiena enpresa kooperatiba da eta paperaz gain, telebista, irratia eta Interneteko webgunea ditu. 49 langile ditu Arrasate, Bergara eta Aretxabaleako egoitzetan banatuta. Berandu baino lehen egoitza bakarrean biltzea nahi dute. Fisikoki gertu egongo dira eta garatzen jarraitu nahi duten kazetaritza ereduari eusteko aukera gehiago izango dituzte. Alegia, kazetariak, edo gaika espezializatuko dira edo herrika, eta langile bera arituko da paperean, Interneten, telebistan eta irratan. Hedabide bakoitzerako, gai bera landuko duen kazetari bana izatea, Azkarateren hitzetan, ez da jasangarria, ez ekonomikoki ezta periodistikoki ere.

2.300.000 euroko aurrekontua

Goiena Komunikazio Taldeak 2.300.000 euroko aurrekontua dauka. Autofinantzaketa bidez diru-sarreraren %61 lortzen dute. Diru-sarreraren beste atal garrantzitsua Debagoienako eta Aramaioko udalen bidez lortzen dute.

Euskara elkarteek sortutako herriz herriko aldizkariaren tokian Goiena kooperatiba dago orain, eskualdeko tamaina hartu eta multimedia proiektu bihurtu den ia 50 langileko enpresa kooperatiba.

Hitza

Nazionala, herrialdekoa, lokala eta hiperlokala

ASTEARTETIK IGANDERA *Berria* egunkaria, ostirale-tan herrialdetako *Hitzak*, asteartetik ostiralera eskualdeko *Hitzak* eta Interneten herrikako webguneak. Labur esanda horixe EKT Euskarazko Komunikazio Taldearen eskaintza informatiboa. Lau dimentsio batzen dituen eskema hori egituratu berria da. Alabaina, abiapuntura joko dugu gaur egungoa hobeto ulertuko delakoan.

Egunkaria S. A. enpresa Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT) bihurtu zen 2003an. Helburua, *Berria* argitaratzeaz gain, prentsako beste hainbat esparru betetzea zen. Hala, prentsa nazionaletik lokalerako pausoa hasi zuen EKTk. Eskualdekako *Hitza* markako egunkariak sortu ahal izateko EKTk Bertako Hedabideak S. L. sortu zuen. Hainbat irizpide finkatu zuen EKTk *Hitzak* sortzeko, horietako bat marka bateratuarena. Eskualdeko hedabide orok *Hitza* izena izango zuen. Iban Arregi Bertako Hedabideak enpresako zuzendariak esan digunez, egunkari horiek sortzeko eskualdeko eragileen inplikazioa ezinbestekoa izango zen. Aldizkariak zituzten euskara elkarteak hartu zituzten sozio naturaltzat. Beraz, bi eragile elkartu ziren *Hitzak* sortzerakoan: eragile nazionalak eta lokalak. *Hitzak* sortzeko enpresa egiturak hiru hanka ditu. EKTren ordezkari lana egiten duen Bertako Hedabideak-ek %35-40 du *Hitza* bakoitzean, beste %40 eskualdeko euskara elkarteek (izan bat, bi ala gehiago) eta gainerako %20 gizarte eragileek osatzen dute, hala nola, kirol elkarteek, ikastetxeek, jubilatuek... Iban Arregiri galdetu diogu ea nola hartu zuten herritarrek eta ordurako aldizkariak argitaratzen zituzten euskara elkarteek eskualdeko informazioa jorratuko zuen proiektuaren etorrera: "Hasieran, beldurretik eta deskonfiantzatik bizi zuten, baina gu egitera gindoazena bakoitzak berak sortzeko



"Hernaniko Kronika, Goiena, Uztarriarekin konparatuta, bi sentsibilitate batzen dituen proiektua da *Hitza*, eragile nazionala eta lokala"
IBAN ARREGI,
BERTAKO HEDABIDEAK-EKO ZUZENDARIA

gaitasuna izan balu, ongi. Sarri gaitasunik ez dago bakarrik egiteko, horregatik proiektu bateratuen beharra. *Hernaniko Kronikak* funtzionatzen du eta bada kontuan hartzeko eredua, baina produktu handiagoa egin nahi baduzu, orrialde gehiagorekin... Gure ustez planteamendu egokiena eskualde mailakoa egitea zen.

Produktuen artean txokerik ez izateko hainbat moldaketa egin zituzten aldizkari batzuek. Guk gure proiektua osagarri izatea nahi genuen". Azpeitiko (Gipuzkoa) *Uztarria* hilabetekaria, esate baterako, hamabostekari edo astekari bihurtzeko hausnarketan ari zen, Urola Kostako *Hitza* sortzeko zegoela. Azkenean *Hitza*ren proiektu

tuan parte hartzea erabaki zuen eta *Uztarria* bere horretan geratu zen. Arregik garbi du: "*Hernaniko Kronika, Goiena, Uztarriarekin konparatuta, bi sentsibilitate batzen dituen proiektua da *Hitza*, eragile nazionala eta lokala. Hor dago diferentzia handia eta horrek alde onak eta txarrak dauzka*".

Krisiak eragindako aldaketak

Hasieran azaldu dugunez, sortu zirenez geroztik aldaketak izan ditu *Hitza* proiektuak; azkenekoak, batetik krisi ekonomikoak eraginda, eta bestetik prentsaren krisiak eraginda. Gaur egungo banaketa sistema ondorengoa da: *Berria* jasotzen duenak, asteazkenetan eskualde horretako *Hitza* ere jasotzen du, eta ostiraletan, *Berria*, herrialdeko *Hitza* eta eskualdeko *Hitza*. *Berria*ko harpidedunak ez baina *Hitza*koak direnek asteartetik ostiralera eskualdeko *Hitza* jasotzen dute eta ostiraletan herrialdeko *Hitza* ere bai. Iban Arregik adierazi digunez, "planteamendu hau abian jarri dugu eskualdetako *Hitzak* sendotzeko eta baita *Berria* sendotzeko ere. Ez da lehentasuna *Hitza* ez dagoen eskualdetan edizio propioa sortzea". ■

Goiena, Hernaniko Kronika eta Hitza datutan

Hitzak



Argitaratzailea: Euskarazko Komunikazio Taldeak (EKTk) Bertako Hedabideak SLren bitartez parte hartzen du *Hitza* bakoitzeko enpresa argitaratzaileetan.

Langile kopurua: 59 (*Hitza* guztiek).

Irutxuloko Hitza (Donostia):

Tirada: 9.000 Aurrekontua: 450.000 euro Autofinantziazioa: %51

Urola Kostako Hitza:

Tirada: 8.500 Aurrekontua: 545.000 euro Autofinantziazioa: %58

Goierriko Hitza:

Tirada: 6.000 Aurrekontua: 635.000 euro Autofinantziazioa: %61

Oarso-Bidasoako Hitza:

Tirada: 6.000 Aurrekontua: 584.000 euro Autofinantziazioa: %50

Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza:

Tirada: 7.000 Aurrekontua: 720.000 euro Autofinantziazioa: %65

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza:

Tirada: 7.500 Aurrekontua: 455.000 euro Autofinantziazioa: %62

Hernaniko Kronika



Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarteak.

Langile kopurua: 7.

Tirada: Astegunetan 4.000 ale eta asteburuetan 4.500. **Hedapena:** Hernani, Astigarra-gako Ergobi auzoa, Urnietako hainbat toki, Goizueta eta Arano.

Aurrekontua: 300.000 euro. **Autofinantziazioa:** %55.

Goiena



Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Koop. E.

Langile kopurua: 49.

Tirada eta hedapena: Ostiraletan Debagoiena bailara osora doan, etxeko postontzietan 20.000 ale. Astelehenetan: harpidedunek etxean, eta kioskoan salgai. Tirada: 5.000 ale.

Aurrekontua: 2.300.000 euro.

Kooperatibako bazkidetza: Euskara Elkarteek %54: AED (Arrasate), Jardun (Bergara), Lai-xan (Oñati), Loramendi (Aretxabaleta), Axtroki (Eskoriatza), Idolaz (Antzuola), Goibeko (Elgeta), Txirritola (Aramaio) eta Gurel (Leintz Gatzaga). Udalek %27 eta lan bazkideek %19.

EUSKAL ANTZERKIA IRAKURGAI

azken argitalpenak:



Patxo Telleria
• Euskara senzilloaren maniestoa
• Larri Hazetara
• Euskarazetamol



Oier Guillan
• Herio heroi
• Arra. Arraroa.



Artezbloi

eskura itzazu!!!

Arrainen bazka
Javier de Dios López

Ni naiz Hector, ni bakarrik
Jokin Oregi

Kinseyren showa
Jesús Díez

Haritzaren azalera zehatza
Aristides Vargas

Emmanuel Kanten azken egunak
Alfonso Sastre

Arriarmategian (isil-mihisilka)
Pablo Barrio

Bartzelona ahaztu
Carles Batlle

Baba zango-horiak
Catherine Zambon

Hegazkin guztiak galtzen zituen emakumea
Josep Maria Miró i Coromina



Durangoko
Liburu eta Diska Azokan

EUSKAL HERRIKO
ANTZERKIZALE
ELKARTEAREN

elkartearen stand-ean

Maite Gurrutxaga

“Zintzotasuna bilatzen dut ilustrazioan”

Gu iritsi aurretik amaitu zaio azken Moleskinea. Alde egin dugunerako esku artean zuen berria.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Zer moduzkoa izan da etxera buelta?

Ona, egia esan, Bilbon eta Bartzelonan bizi ostean ez nuen uste hain ondo eramango nuenik. Hemen ordu gehiago eskaini diezazkioket marrazteari. Bartzelonan diru gehiago behar nuen bizitzeko, eta denda batean lan egiten nuen, baina orain gurasoen etxean bizi naiz eta horrek ere baditu bere abantailak. Etxean badut marrazteko txoko bat eta Artelekun ere espazio bat daukat. Marrazten ematen dut denbora gehiena, marraztu dezakedian ondo nago.

Nola egin zenuen topo ilustrazioarekin?

Marraztea beti izan dut gustuko. Baina Arte Ederretan pinturan espezializatu nintzen, nahiz eta ilustrazioak erakarri ninduen. Uste dut jendeak eskatutako enkarguek eta atera zaizkidan proiektuek egin nautela ilustratzaile. Lehenengo enkarguekin batera hasi nintzen “ilustratzailea naiz” esaten. Kerobiakok haien diskoen azalak ilustratzeko eskatu zidaten eta orduan hasi nintzen pentsatzen baietz, posible zela ilustratzaile izatea, aukera bat izan zitekeela. Formatu txikia asko gustatzen zait: arkatzarekin moldatu ahal izatea, traste gehiago behar ez izatea. Gutxitasun hori, txikitasun hori. Horretaz gain, beti gustatu izan zait irakurtzea, asko gozatu dut irakurriz eta liburuetakoko munduak imajinatzu, eta irakurtzeak sorrarazten didan irudimen hori guztia papereratzeko plazera ematen dit. Irakurtzeak beti bultzatu izan nau marraztera. Mihise handiek beldur pixka bat ematen didate; iruditzen zait, hain azalera handian zerbait oso ona egin behar dela, hainbeste leku alferrik betetzeak beldurra emango balitz bezala.

Hainbat modu daude ilustrazioa ulertzeko. Zein da zurea?

Niretzako, ilustrazioa ez da dekorazio soil, gehiago da. Irakurtzen duzunaren gainean egiten duzun hausnarketa da, eta gogoeta hori nork egiten duen, emaitza erabat desberdina izango da. Norberak bere ikuspuntua gehitu behar dio idazlearen testuari. Bakoitzak bere esperientziatik hitz egin behar du, ilustratzaile bakoitzak bere diskurtsoa du, gauzak azaldu nahi ditu, ez da apaingarri soil, ez da bakarrik ipuinean agertzen den hori marraztea, interpretazio bat egin behar da. Ilustratzaileak ere kontatu egiten du. Testuek irudimenerako tartea uzten digutenean, ilustratzaileok beste pauso bat gehiago ematen dugu, gure eran-

Nortasun agiria

Maite Gurrutxaga Amezketan sortu zen 1983an. Arte Ederrak ikasi zituen Bilbon, eta Bartzelonan amaitu zituen ikasketak. Karrera amaitu ondoren ilustrazioko ikasketak egin zituen Bartzelonan bertan, Escola de la Dona-n. Han lotu zitzaion erabat ilustrazioaren munduari. Kerobia taldearen azalak eta Joseba Sarrionandiaren *Gau ilunekoak* liburua ilustratu ditu, eta album ilustratuak sortzeko Etxepare saria irabazi zuen Mikel nebarekin batera. Horretaz gain, hainbat lan argitaratzeko autoediziora jo izan du. Duela urte eta erdi itzuli zen Amezketara eta hurrengo geltokiaren bila dabil, Moleskineak eta boligrafoak poltsan.





“Koadernoetan lasai aritzen naiz, presiorik gabe. Intuizioz egindako marrazkiak dira gehienak, pentsatu gabe marrazten dut”.

tzuna ematen diogu testuari, eta ikusleak edo irakurleak baditu bi abiapuntu, istorio beraren bi interpretazio diferente, eta berak hirugarrena sortu beharko du.

Testu bat jasotzen duzun momentutik aurrera, zeintzuk dira hartu behar izaten dituzun erabakiak?

Proiektuaren arabera. Proiektua librea baldin bada, norberak aukeratu ditzake formatua, tamaina, maketazioa, konposizioa... Hori guztia. Beste batzuetan argitaletxeak esaten dizu zein den maketatzeko era, zer espazio daukazu, zer formatutan aterako den eta zenbat ilustrazio behar dituzten. Eta ilustratzaileak moldatu behar du muga horietara. Baina hori dena baino garrantzitsuagoa da irakurtzen jakitea, testuari entzuten jakitea, testuak berak esaten baitizu zer arkatxerabildi behar duzun, edo tinta erabili behar zenukeen, koloretan edo zuri-beltzean izan behar duen edo collage-a doakion. Erabakiak tes-

tuarekin batera hartzen dira, irakurtzen joan ahala jasotako informazio eta sentsazioetatik. Marrazten hasi aurretik buruan irudikatzen dugu. Askotan argitaletxeek jarritako mugak ere erronka dira ilustratzaileontzat, eta muga horiek gauza berriak irakasten dizkizute. Enkarguzko lanetan jartzen dizkizuten muga horiek betiko erak utzi eta beste teknika batzuekin saiatzera eraman zaitzakete, gauza berriak bilatu behar izatera. Askotan, ipuinak berak jartzen dizkizun trabak akuilu bilakatzeko dira.

Eskura eramaten dituzu beti boligrafoak eta lan-koaderno txikiak, zer da koadernoetan biltzen duzuna?

Koadernoetan lasai aritzen naiz, mugarik eta presiorik gabe. Intuizioz egindako marrazkiak dira gehienak, pentsatu gabe marrazten dut, eta gero hortik sortzen dira istorio berriak. Gutxi gorabehera bi edo hiru hilabete inguru behar izaten ditut koaderno bat betetzeko, eta eguneroko lana dago hor. Oso lagungarriak dira norbere lengoia propioa bilatzeko.

Koaderno horiek bata bestearen atzetik hartzen badituzu, zer garapen ikusten duzu?

Badaude hainbat gauza errekorreentek direnak, adibidez, paperezko barkutxoak, etxeak... Giza-irudiak beti agertu izan dira nire lanetan. Aldaketa edo garapen nagusia forman eman dudala esango nuke. Hala ere, marrazki bat forma eta eduki aldetik onena ez bada ere, zintzoa baldin bada, pozik gelditzen naiz. Zintzotasunari garrantzi handia ematen diot. Gainera, koaderno horiek

horretarako daude, ikasten zoazen bitartean esperimentatzeko, eta zure burua bilatzeko, zu nor zaren jakiteko. Askotan gure koadernoek gehiago hitz egiten dute gutaz guk geuk baino. Ez du zentzurik esperimentazio koadernoetan gezurtia izateak, zintzoa ez izateak. Garapena ezinezkoa litzateke. Nire garapenik handiena marrazketa-koaderno hauekin lanean hasi nintzenetik gertatu da. Bartzelonan ez nuen marrazteko nahi adina astirik, hemen bai. Lanak sentiarazi nau ilustratzaileago. Azken batean, etengabeko entrenamendua da hau niretzat.

Zeri deitzen zaio lengoaia propioa izatea ilustrazioan?

Batzuek estilo propioa deitzen diote, beste batzuek ahotsa... Ilustratzaile bakoitzak bere sinbologia propioa sortzen du, bakoitzarentzat irudi jakin batzuek esanahi pertsonala hartzen dute. Badago sinbologia unibertsal bat, baina hemen edo hemendik 15.000 kilometrorra bizitzeak desberdin hurbiltzen gaitu objektuetara, paisaietara... Eta berdin gertatzen da pertsona batetik bestera dagoen distantziarekin ere, norberak modu bat du mundura hurbiltzeko eta mundu hori errepresentatzeko, eta horrek egiten zaitu berezi. Trazoak asko esaten du norberari buruz, baita erabiltzen dituzun koloreek eta egindako konposizioek ere. Horren guztiaren batura litzateke lengoaia propioa. Eta lengoaia batek barne koherentzia behar du, edozein artetan. Irudia eta estetika garrantzitsuak dira, estetika propioa bilatzea. Baina gehiegi urduritu gabe, lengoaia propioa ez baita bat-batean sortzen, eraiki egin behar da, eta bidean aldaketak gertatzen dira, saiakerak, itzulginguruak...

Zure koadernoetako ilustrazioak txiki-txikiak eta zehatzak dira. Zer bilatzen duzu txikitasunean?

Txikiak eta zehatzak dira, eta tintaz egiten ditut zuzenean. Tinta ariketa gisa erabiltzen dut. Azken finean, nire koadernoak ariketa liburuxkak dira, eta ez dut arkatzik erabiltzen, nahiago dut bat-batean lan egin, zuzenketarik gabe, eta hortik ikasi. Funtzionatzen duen lehenengo trazoaren bila egiten dut lan. Hori da nire bilaketa, eta horregatik erabiltzen dut boligrafoa zuzenean. Eta txikiak zergatik? Ez dakit, baina eroso sentitzen naiz txikitasunean. Irudi txiki bat egiten dut, eta hurrengo batean haren ondoan beste bat, eta gainean beste bat... eta orri bakoitzaren konposizioa osatuz joaten naiz. Irudiak elkarren artean komunikatzen hasten dira, elkarriketak sortzen dituzte. Paper zurian bakarrik zegoen ilustrazioa gauza bat ari zen esaten, baina

Zintzoa izatea

"Nire zintzotasunerako bidea asmo handikietatik urruntzea da. Marrazterakoan pretentsio handiegirik ez izatea. Edukiei dagokienez helburu handiak ditut oraindik, baina forma aldetik pretentsioak txikitzen doaz, eta horrek irudia zintzoago egiten du. Norbere mugak, uneen uneko muga horiek onartzea beharrezkoa da aurrera egiteko, 'orain hau naiz' onartzea da eboluzionatzeko modu bakarra. Lanean hori onartuta hasten bazara lana hobea izango da, seguru: zintzoagoa delako, eta irudi batean zintzotasuna nabaritzen denean, zuzenago iristen da, freskotasuna izaten du. Askok erreflexionatzen dut nire lanaren eta besteren lanaren gainean, baina uste dut gogoeta edukietan egin behar dela; teknikarekin hobe zintzoa izatea".

beste pertsonaia batzuekin inguratzen dudanean marrazki bera beste gauza batzuk esaten hasten da. Eta ni konturatu gabe gauzak deskubritzen joaten naiz. Askotan gertatzen zait lagunen batek koadernoren bat ikusten uzteko eskatzea, eta harekin batera koadernoari begira ari naizela, gauza berriak, istorio berriak ikusten ditut, eta askotan barrez lehertzen bukatzen dut.

Enkarguetarako lan egiteaz gain zure mundu propioa garatzeko egiten duzu lan. Nola deskribatuko zenuke zure mundu propio hori momentu honetan? Zerekin ari zara orain lanean?

Aldaketa-momentu batean nago, trantsizioan, eta badakit horrekin ezin dudala urduritu, onartu egin behar dudala. Aldaketak ari dira gertatzen, eta erosoago sentitzeko modua bilatu beharra daukat. Zintzotasunaren bila nabil, eta proiektu berriei ekiteko gogoarekin, eta editorialetatik lanik ez badago, ba, anaiari ipuinak eskatuz, lehiaketetara aurkeztu... Mugitzeko gogoarekin. Ofizio honetan zentratzea erabaki nuen eta energia asko eskaintzen diot, eta kanpotik enkargurik ez badago neuk jartzen diot lana nire buruari. Orain, esaterako, erakusketa bat prestatzen ari naiz etxearen ideia inguruan. Etxeak esanahi asko ditu: batzuetan, etxea familia da, odolezko familia hori; baina egoerak eraman zaitza ke beste familia mota batzuk sortzera beste hiri, beste egoera batzuetan... Edo etxea karga izan daiteke, edo ametsa... Ez naiz esperientzia propiotik bakarrik ari, ingurura ere begiratu dut ilustrazio horiek sortzeko. Etxea arrastaka daramaten pertsonaiak marraztu ditut, etxea kristalezko bola baten barruan duten pertsonaiak... Jendeari galdezka ere aritu naiz, ea beraientzat etxea zer den. Banuen lagun bat Bartzelonan, atzerritarra, eta esaten zuen gauza asko aldatzen zirela bakoitza etxetik urruntzen zuen distantziaren arabera. Nik sei ordura neukan, baina berak askoz ere arazo handiagoak zituen momentu batetik bestera etxera itzultzeko, eta horrek sentiarazten zion ezinegonaz hitz egiten zidan.

Enkarguzko lanetan zer moduz moldatzen zara?

Eroso, gustura. Idazlearen testua ondo barneratzen saiatzen naiz. Enkarguetan ere zu zara lan hori egiten ari zarena, zuri eskatu dizute, zu beste filtro bat zara eta zugandik pasa behar du lan horrek, ezin duzu desbin kulatu, eta horregatik da garrantzitsua ilustratzaile bakoitzak bere mundu propioa garatuta izatea. Ahal den neurrian zure egin behar duzu testu hori, azken batean, testu hori irakurtzean sentitu duzuna zeurea da, eta zeuretik abiatu behar duzu.

Normalean idazleen testuetatik abiatzen zarete ilustrazileak, eta ez alderantziz. Interesgarria litzateke alderantzizko prozesua? Liburuetan ere lehenengo idazlearen izena azaltzen da beti, eta azpian eta txikiago ilustratzailearena. Itzaleko lana da zuena?

Bai, badirudi liburu bat idazlearena dela. Egia da idatzitakoa idazlearena dela, baina gurea ez da 2. mailako sormena, nik ez dut hala ulertzen. Dena den, ez zait asko inporta lana zeinena den, biena den ala idazlearena bakarrik, faltan botatzen dudana heziketa da, ohar gaitzen irudia ere hor dagoela, eta irudiak ere kontatzen duela, eta abiapuntu berri bat izan daitekeela istorioari ekiteko. Liburu bati irudiak jartzen bazaizkio soberan ez daudelako da. Badaukate-lako zer kontatua. Inork ez du dirua alferrik xahutzen. Heziketa behar da. "Ze marrazki politak", hori askotan entzuten dugu, baina ez diogu marrazki horrek esaten digunari erreparatzen. Mezu asko daude irudiek bakarrik esaten dizkigutenak. Nik uste heziketa dela falta zaiguna.

Zer eskaintzen dizu autoedizioak?

Asko ikasi dut autoeditatuz. Editore txiki baten lana egiten du norberak, eta interesgarria da. Zerorek pentsatu behar duzu formatuan, maketazioan, koloreetan, aurkezteko moduan... Iruditik aparte, hartu beharreko erabaki asko daude, eta horrek asko erakusten du. Gainera, halako abentura batean sartu baino lehen galdera bat egiten diogu denok gure buruari: "Zer esan nahi dut?". Askotan galdera horri erantzun gabe jarduten gara lanean, eta autoedizioa egiten duzunean asko pentsatzen duzu horretan: zer da kontatu nahi dudana? Zer ekarpen egin nahi dut? Eta tandemean lan egitea ere oso interesgarria da, gustuko idazle batekin edo beste irudigile batekin erabakiak hartzen joatea. Aparteko mundua da, oso polita. Banaketarena da alderdirik zailena. Hemen ez dakit nola funtzionatzen duen, hemen ez naiz saiatu, baina liburu-dendetan askotan zigilu bat behar izaten da saldu ahal izateko, enpresa gisa funtzionatu beharra daukazu, beraiek ere, gauzak kontrolpean izateko behar dituztelako zenbait ezaugarri, eta autoeditatutako lanak merkaturatzea ez da erraza. Baina badaude denda alternatiboak,



tabernak, arte galeriak... halako lanak onartzen dituztenak, eta norberak editaturikoa norberak zabaltu behar izaten du normalean. Horrek baditu alde onak, ze girotan mugitu nahi duzun erabakitzeke aukera ematen baitizu: ze liburdenda gustatzen zaizkizun, zure lana non erakutsi nahi duzun... Zirkuitu alternatiboetan oso ekimen interesgarriak aurki litezke.

Gainerakoan, nola ematen du bere burua ezagutzera zu bezalako ilustratzaile gazte batek?

Aukera bat argitaletxeetara joan eta editorearekin zita eskatzea da, zure lana aurrez aurre erakusteko. Book-a izatea beti da interesgarria, book bat antolatzea norbere proposamenarekin. Nik, askotan, pdf formatuan bidali izan dut nire book-a argitaletxeetara, Internet bidez. Bukatutako proiektuak bidali izan ditut eta baita ilustrazio-proposamen diferenteak ere (album ilustratuetarako proposamena, testu-liburuetarako proposamena... betiere norberaren erregistroaren barruan, baina aldea egoten baita) argitaletxeak etorkizuneko proiektuetarako kontuan hartzeko. Nora bidaltzen duzun, book-a aldatu behar duzu, ez da gauza bera prentsarako proposamen bat edo argitaletxe bati egingo zeniokeena. Curriculumak da book-a: hartzaileari interesatuko zaiona aurkeztu behar diozu. Aurkitutako argitaletxeen zerrenda osatzen joan naiz etxean, eta guztietara bidali izan ditut nire proposamenak: batzuek erantzuten dute, beste batzuek ez, batzuek esaten dizute aurrerago deituko dizutela... Eta egia da, aurrerago kontuan hartu

izan naute. Bidaltzen duzun unean ez duzu jakiten erantzuna nondik etorriko zaizun, ezta erantzuna jasotzerako zenbat denbora pasako den ere. Baina argi dagoena da ezin dela geldirik egon, bideak bilatu behar dira, idaztea gustatzen zaion jendea aurkitu eta elkarlanak proposatu... Enkarguek mugimenduan harrapatzen zaituzte. Gainera, geldi dagoena ez da ikasten ari.

Ilustratzaile lanetik bizi nahi zenuke?

Oso zaila da, badakit badagoela ilustraziotik bizi den jendea, baina tira, momentu honetan ez nau asko kezkatzen. Orain ez naiz handitan zer izan nahi dudana erabakitzen ari. Orain marrazten ari naiz. ■

www.maitegurrutxaga.blogspot.com

OFF THE RECORD

Autoerretratua

Umetan, printzesak, txirristak eta baserriak marrazten omen zituen Maite Gurrutxagak etengabe. Orain, bere mundua hiru objektuarekin marraztu beharko balu etxea marraztuko luke lehenik; jendea gero, jende xehe eta txikia; eta arkatzak eta papera azkenik. "Printzesak desagertu ziren" dio, eta begiak txirrista, beste fantasia batzuetara irristatzen da.

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Inozenteen egun luze-luze bat

M

unduak eragiten didan neurrigabeko minak eraginda idazten dudala esan dezaket serio, baina ez dut uste

arrazoi horrek inori arreta berezia piztuko dionik. Ordea, nire poemak guardia zibilari bertso-lari-txapelketei buruzko ezkutuko informazioa emateko bide bat direla aitortzen badut, orduan bai, batek baino gehiagok hori itsu-itsuan sinestu eta estrofa bakoitzeko puntuak eta komak neurutzen hasiko litzateke, Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetan kongresu bat antolatzeraino. Asko gustatzen zait gainerakoek idazteko duten argudioak aurkitu eta irakurtzea, baina nik desilusio pixka bat hartzen dut nire zergatiengan pentsatzen dudanean, zergatirik ez dudalako. Idatzi, ez dakit zergatik egiten dudan, bizi ere zergatik bizi naizen ez dakidan bezala. Uste dut aspaldi gaingitu nuela helburu jakin batekin idatzi behar den ideia madarikatua, erromesaldi honetako printzipio handiak ere aspaldi gaingitu nituen bezala. Idaztea, edozein eratako idatzia delarik, barne-prozesu erradikala da nigan, eta zer ikusirik ez du efikaziarekin edo propaganda-rekin, gure garaiko idazle gehienek idazteari ematen dioten erabilerarekin alegia. Idatzi egiten dut. Eta kito. Hori da sakontasunez esan dezakedan bakarra. Baina horrek ez dit eragozten, aitzitik, oso deseroso zaidan errealitate bati adi bizitzea, nire kontzientziak lagunduta, gizaki orok gainerako gizakiekin bere harremana nola konpondu beharko lukeen erabakitzea. Eta gauzak dira direna, haiei begiratu edo ez, haiei kasu egin edo ez, eta gauzak ez dira diren bezalakokak ni ohartzen naizenean edota nik hala direla ofizialki erabakitzen dudanean. Eta niri gauzek, munduko gauzek, gizakiaren gauzek, min ematen didate. Are gehiago gaur, den-dena

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Urkiza

gezurraren marketina den honetan. Eta errazena, sinpleena hori da, gezurrean eroso bizitzen jarraitzea. Gezur diren gauzak eta giza-kiak egin behar dira, kontsumoaren kumeak gogaitu nahi ez baditugu, gezur diren gauzak eta gezur diren giza-kiak kontsumitzen jarraitu dezaten. Horrela dena da

eramangarriago. Gabonetako jaietan bezala. Gehienen borondatearen kontra iristen dira, inork gutxi ospatu nahi ditu, enbarazu galanta baino ez dira etxekoandre guztientzat, depresioa ere sortzen dute, eta, hala ere, egin-egin behar dira hipokresia zurienaren paradigma diren erritual, bazkari eta afari meta-patetiko horiek guztiak. Amamarengatik da, umeengatik da, beti dago aitzakia boteretsuren bat. Eric Cantonak bankuei boikota egitera deitu zuenean, denak batera bankuetatik dirua ateratzea korrika irten orde, zabor-hipotekak zintzo ordaintzeari uzteko beldur-erak jota gelditu ginen etxean. Eta etxean diot, etxea gurea balitz bezala, baina hori ere haiena da, gure askatasuna haien jabego den bezala, erabateko jabe diren askatasunaren gurasoena alegia. Holakoak dira jainko berriak. Gehiago balio du gutxi horien ohoreak, gu guztion bizitzak baino. Haiek pilatzen dituzte gure edertasun eta egia guztiak, haiek baimentzen dute gure salbazioa, haiek zigortzen gaituzte sinpletasun txikienera, halabeharrezko tolesgabetasunera. Eta zer egin dezake gizaki xalo sinplifikatu batek errealitate guzti horren

aurka? Zer egin dezake gizaki xalo sinplifikatu batek Wikikaren garaian? Txillida-Leku museoak atek itxiko ditu abenduaren 31n. Eskultorearen seme Luis Txillidak jakinarazi duenez, krisiak eragindu du itxiera. Lasai, ez dauka inork egin beharrik, nik neuk itsatsiko diot nire bizkarrari inozenteen panpina. ■



Niri munduko gauzek, gizakiaren gauzek, min ematen didate. Are gehiago gaur, den-dena gezurraren marketina den honetan.

Eta errazena, sinpleena hori da, gezurrean eroso bizitzen jarraitzea



Eneko Olasagasti

ZINEMA EKOIZLEA

Teknologia berriak eta zakurraren putza

Nazka, lepo, kokoteraino eginda nago, ez teknologia berriekin baizik eta zenbaitek haien inguruan egiten duten erabilerarekin. Nago ez ote duten berriz ere beren burua zurrizteko baino egiten. Zenbat ekitaldi, jardunaldi, lantegi, topaketa, foro eta abar antolatzen da epigrafe horren babesean? Eta zenbat diru xahutzen da horrelakoe-tan? Zenbat aditu, jakintsu, sasi-oro-jaki-tun bizi da horren kontura, denon kontu-ra? Eta zertarako? Ez al da gehienetan gauza bera errepikatzen? Eta hitz magi-koa: digitalizazioa. Dena da gaur egun digitalizazioaren ingurukoa, haren beha-rra, balore estrategikoa, ezinbestekotasu-na. Garai bateko homologazioaren pare-ko dela ikusten dut.

Eta esan dudana: zertarako? Hainbat erakundek zerbait egiten dutela justifi-katzeko? Hemen ere garai berriekin bat goazela erakusteko? Hainbat departa-mendutako jendearen soldatak justifi-katzeko? Azalergia hutsak. Eta non dago mamia? Zerez beteko ditugu tresna berri horiek guztiak? Nor arduratzen da tekno-logia berri horiek eduki berriz betetzeaz? Gutxi-gutxi batzuk kenduta inortxo ere ez. Behin eta berriro entzuten dugu gure arloaz, ikus-entzunezkoek aritzean, euskarri berriak hartu behar direla kontutan. Kontsumo ohiturak aldatzen doazela. Eta historiak ez direla hemen-



INES URRUTIA



Jakin nahiko nuke
zenbat jende bizi den
ikus-entzunezko arloan
sortzetik eta ekoiztetik
eta zenbat diren,
barkatu baina, parasito



dik aurrera euskarri tradizionaletarako pen-tsatu behar. Etorkizuna sarean dagoela, mugikorretan, teknologia berrietan alegia. Eta bitartean gu sarean harrapatuta senti-tzen gara. Ezen eta nondik etorriko da his-toria horiek finantzatzeko dirua? Jomugan horixe daukagu baina finantzabide berrie-z ez da ezertxo ere aipatzen. Erabili, zabaldu, baina nork ordaindu? Bezeroek? Eta nola egiten da hori? Doakotasunaren aldekoak baikara gainera.

Ze, diru gutxi gastatzen dugu gozo-kian eta zenbat zelifanean. Baina paketea ederra bada ere, guk gozokia jan nahi dugu, zelifana irenstezina baita. Elike-gaia barruan dago. “Nola” oso inportan-tea da, noski, baina inportanteena “zer” da. Estatistika asko egiten da, baina bate-ren baten falta somatzen dut. Imaginatzen dut hau arlo guztietara aplikatu zitekeela. Baina gurean oso nabarmena da, zan-tzuak baino ez badira, datuen faltan. Jakin nahiko nuke zenbat jende bizi den ikus-entzunezko arloan sortzetik eta ekoiztetik eta zenbat diren, barkatu baina, parasito. Hau da, besteek egin dutenaren kontura bizi direnak. Funtzionari, antola-tzaile, aditu, aholkulari, jakintsu, abokatu, ekono-mista, kritikoa, zinemaldi, topaketa, jardunaldi... Beharrezkoak izango dira baina hainbeste bai? Zenbat diru eskaintzen zaio sorkuntza eta ekoiz-penari eta zenbat parafernaliari? ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ziruditen Baionarantz zetozenak, AHTren proiektuari aurre eginez, joan zen larunbatean erreketako urak bai-liran Lapurdiko hirira egin zutelarik. Marka askotarikoak, ez zuten gutxi luzitu hamabost bat milako jendeen bibakak jasoz, pasareletako mode-loena eginez manifestaldiaren burua hartzeko aitzina hartuz bidea irekitzera abiatu zirelarik. Autobuska joan ginen bertara, orain arte inoiz gurutzatu ez dugun herrikide andana lagun. AHTk ez du begirik, itsua da, eta bere bidean –gutuziazko begibakarra zenbaitetan– harrapatzen duen guztia errekarara eramaten du. Eta

Traktore-bideak

guzti horretantxe bilduarazi gaitu harrapatuak, errekarara egingo gaitue-nak. Boz-emailez gain, hautetsiak ere aurretik eramanak sentitu dira eta behingoz gurekin bat egin dute hortzak erakusten, orain arte gu gurutzatzean mingaina airera dantzatzen zutenak. Azkar senti-tu gara, boteredun. Eta batera, Aquitaine-Euskadi elkarteak merkantzia komertzialentzat trenbideko estrategia aurkeztu du, AHT burutzeko zerabilten argudio azkarrena alboratuz, gurea baieztatuz. Gezurra zela, ez genuela horren beharra, hori gabe bestelako soluziorik bazela. Traktoreek eta autobusek ikasi dute bidea, AHTk ez. ■

Aitor Zabaleta

KAZETARIA

Urrutiko iraultzak



aisuak galdera ikasleari Kubako eskola batean.

– Esaiguzu, mesedez, gure iraultzaren hiru lorpen handi.

– Osasuna, Hezkuntza eta Kirola–, erantzun ikasleak.

Maisuak berriz:

– Eta hobetu beharreko beste hiru gauza?

– Gosaria, bazkaria eta afaria–, erantzun mutikoak.

Habanan entzundako txistea, azterketak sakonena baino adierazgarriagoa iruditzen zitzaizkidan.

Hamabost egun besterik ez nuen egin Kuban, eta, beraz, gauza handirik ezin esan, baina bi ideia esango ditut behintzat, Kuban ikusitakoaren ondorio. Bata, ez dela nire ahotik sekula gehiago hango gobernuaren aldeko hitzik aterako. Eta bestea, badaukadala susmoa castrismoa bukatutakoan, anti-castrista egingo direla kubatar gehienak, Espainian Franco-rekin gertatu zen antzera.

Habanan, Iraultzaren museoa bisitatzerakoan, nola ez sentitu zirrara, baita mirespena ere, gazte adoretzu haiek duela 50 urte egin zutena ikusteko. Baina kalea zapalduta, museoko inpresioak kearen moduan azkar desagin ziren. Nik ezagutu nuen Kuba ez zen alaia, leku gutxitan hain begirada tristeak, horrenbeste etsipen. Aberastasuna banatzea helburu ederra da, Kuban eta edonon, baina ezin banatu ez dagoena.



Susmoa daukat castrismoa bukatutakoan, anti-castrista egingo direla kubatar gehienak



Ze erraza den Europan iraultzaile izatea, urrutitik iraultzaile, noski. Kubakoa goraipatu eta hemengoa gutxietsi, baina garajeen 25.000 mila euroko kotxea edukita, eta bigarren etxea Jakan edo Errioxan, eta neguko oporrak elurretan, eta uda Cadizen. Zenbat horrelako Euskal Herrian.

Kuban, berriz, 20 euroko soldatak asko jota, kanpora atera ezin, eta isilik egon behar, urteak joan urteak etorri betiko leloak etengabe entzuten. Eskumari botoa ematen dion langilea baino tontoagorik ez dagoela dio esaldi ezagunak. Listoak, ordea, ezkertiar peto sentitu eta kapitalista moduan bizi direnak. Europan ezker-ezkerreko alderdiak ia desagertu dira, baina Euskal Herrian, oster, bilduma zabala daukagu. Gu ote gara listoak?

Ez dago Europa inori eskolak emateko moduan, baina errealista izanez gero, eta ikusita mundua nola dagoen, ezin ukatu Europak erdietsi dituela bizi baldintza justuenak. Lorpen handiena, nire ustez, gizartearen %90 erdi klasekoa izatea. Guretzat ohikoak direnak pentsaezinezko luxuak dira munduko leku gehienetan: osasun publiko ona, ikasteko aukera, babes soziala... Baina Europa aspergarria da, ez dauka xarmarik, eta batzuek nahiago dute urrutiko sasi-iraultzaile izan, aspal-di galdu ziren paradisuen distirek itsututa, eta koherentziaz harro gainera, lotsarik gabe. ■

TXANDAN

Josu Amezaga



Asko hitz egiten da globalizazioak kulturen eta hizkuntzen bilakaeran dituen ondorioez. Kasu gehienetan, eredu anglosaxoiaren eta ingelesaren zabal-kundeari lotutako kezkek planteatzen dira.

Aitzitik, badira bestelako joerak globalizazioan, berau gertaera konplexu eta kontraesankorra dela erakusten dutenak. Hona datu bat: gaur egun AEBetako biztanleen %20 ingelesa ez den hizkuntza batez mintzo da etxean; duela hogeita hamar urte portzentajea %11 zen. Beste datu bat: mundu

Globalizazioa

osoan, satellite bidezko 1.000 telebista emanaldi zuzentzen dira ingelesez, herrialde ez ingelesdunetara; aldi berean, 900 emanaldi zuzentzen dira AEBetara, ingelesa ez diren hizkuntzetan. Hartara, hango estatuak –Europako askok bezala– gero eta zailtasun handiagoak ditu kultur batasuna eraikitzeko; nazio sentimendua ziurtatzeko, beraz.

Badirudi globalizazioarekin munduko hiri eta herrialdeek gero eta elkarren antza handiagoa hartzen dutela. Baina, aldi berean, beren baitan gero eta heterogeneoago bilakatzen ari dira.

Gutxienez, globalizazio bitxia. ■

ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

Lagun bat

Badut lagun bat artikulu hau ez duena irakurriko. Ez dago kartzelan inkomunikaturik, ez da hil, ez da ezta erdalduna ere. Ez zaio idazten dudana interesatzen, besterik ez. Inoiz ez dit argi eta garbi esan (ez dakit “hain zuzen, laguna delako” esan beharko nukeen ala “harrigarriro, laguna den arren”), baina gauza hauek nabaritu egiten dira. Uste dut uste duela ez ohi dudala deus esaten, funtsezko ezer ez. Forma hutsaz arduratzen naizela. Hala ere, ez da egia formaz baino arduratzen ez dena formaz baino arduratzen denik, hain zuzen ere funtsik gabeko forma makerra baita, itxuragabea, antiestetikoa, edo hala izanen bailitzateke gertagarria balitz. Mezudun idatz dezagun, ederra baita, ez beste ezerengatik, zerbait esatea, hitzez.

Badut lagun bat literaturan mezua lehenesten duena. Nire lagunaren irakurketa, beti iruditut zait, gehienbat etikoa da. Teoria irakurtzea atsegin du. Nik ere preziatzen dut hainbat teoriaren edertasuna (etorkizun diren gauzen plazearean edo datu zehatzaren zalantza jartzean oinarrituta), baina, oro har, eta aurrekoarekin kontraesanean balego bezala, modua da, nola erran (esan dezadan jatorki), lehenago begizatzen dudana eta batik bat kezakabide izan ohi dudana. Hein handi batean ados nago Beñat Sarasolak 2.256. ARGIAko Ttakun (H)Errenkan esaten eta aipatzen zuenarekin: “Poetak edertasuna eta egiaren artean aukeratu behar badu, lehenengoaren alde egingo baitu itsumustuan. Horixe bera leporatu zion behin Koldo Izagirrek (poema batean): ‘Ez haiz gauza gezurra bezain eder esateko egia’”.


Badut lagun bat liburuak maileguz hartzen baititzkit (nik hari ere bai), eta horregatik edo nire idaztokiaren desordenaren



JOSU SANTESTEBAN

erdian non utzi dudana ez dakidalako, buruz aipatu beharko dut, manipulatu bada ere, artikulu honen arrazonamendu hala nola-koa aurrera aterako badut, Fredric Jamesonek *Marxism and Form* saiakeran dioena: “Nork bere esaldien forma aintzat hartzeko betebeharra dauka”. Nire ideien jariora askatuko banu (jainkoak libra zaitzatela), orrialde hau kaos bat –are handiagoo–

Nire ideien jariora askatuko banu,
orrialde hau kaos bat –are handiagoo–
izango litzateke. Idazlearen
ogibidean sinesten dut:
ez da denetaz dakien
izaki bat



irudia:

Antton Olariaga

de hau kaos bat –are handiagoo– izango litzateke. Idazlearen ogibidean sinesten dut: ez da denetaz dakien izaki bat (horretarako, adituak daude), ez da izaki hipersentikor eta irribarretsu bat, fotogeniaren dohain beti eskergarriaz eta nonahikotasunarenaz apaindua, ez da, halabeharrez beti ere, tormentatu bat, ez du jaka, fular edo betaurrekorik janzten; soil-soilik, akaso ez dituen ideiak, edo badituela uste dituen ideiak, ordenan, denik eta ordena egokienean, paratzen dituen izakia da; ideia horiek eszenak baldin badira, narratzailea da; hitzak badira, poeta da; kontzeptuak badira, filosofoa edo, kasurik hobereanean, umorista da.

Badut lagun bat paragrafo guztiak modu berdinean hasia aurpegiaratu-ko eta itsustuko zidana (eta ni ados egongo nintzen berarekin).

Kontatu nahiko banu, nagoen kafe-tegian, hau idazten –gezurra diot, hau zirriborrazten– dudana bitartean, ondoko mahaian adineko andre batzuek nola hitz egiten duten beraien amei buruz (“¿Y tú madre todavía se vale?”), lehengaia hainbeste beharko nuke manciatu, oraindik ez dakizkidan helburuak lortzearen (irakurlea hunkitu, amak ere badiren alaba horien egoismoa salatzeke, gizarte osoaren noraeza salatzeke, irribarri uzteko...), ezen ikusitako eszenaren mertzenarioa baino ezingo nintzen sentitu,

droga purua karearekin nahasi ondoren partitzailea bezala –nazkatuko ninduen aitortu behar izateak baina baita ukatzeak ere. ■

BERTSO BERRIAK

Erika Laguna eta Beñat Gaztelumendi

Mikel Laboari jarriak

GALDER IZAGIRRE / XDZ



I

Ez nau beldurtzen etorkizunak,
iraganaren ospeak
haize hegoak lanbrotu arren
sarritan festa-osteak;
ez nau beldurtzen nire herrian
Txerokea izateak
bentara joan orduko urtzen
direlako bi kateak.
Ibiliaren ibiliz lehertu
zitzaizkidan juanteak
herriak eta hizkuntzak noizbait
egin ditzaten bakeak
behin Iturengo arotzak egin
zituen sabai fuertak,
baina noiz arte iraungo digu
gaberako aterpeak?

II

Ez nau beldurtzen arnas estuak,
hauspo xumeko errotak
bizi badira gaur mende erdi
abestutako erronkak,
lepoa xamur daukadarik
harrapatzen banau sokak
zeru beltzean izarren hautsaz
zikindu baititut botak.
Buruz dakizkit bide ertzeko
radarrak eta stopak
liluraren kontra jarri bainau
txinaurriaren borrokak.
Hizki berrien bila dabilta
gure sorterriko koplak
egunez egun entzun daitezen
martxa baten lehen notak.

GALDER IZAGIRRE / XDZ



III

Ez nau beldurtzen lehengo jakintzak
elikatzeak desioz:
Baztan, Urtsua eta Pasaia
bete dira Lekeitioz;
besterik ezagutu ez eta
egonez gero beti hotz
sorginen бага-biga bizia
bilakatzen da heriotz.
Gure ama hil al zaigu bada
aita hiltzeko obsesioz?
Ihesa zilegi bada ere
jantz dezagun tradizioz
txori bat ere horixe baita
bere begi, bere ahots:
liliak hostoz hosto erantzten
diren antzinako bihotz.

IV

Ez nau beldurtzen hosto eriak,
sano badago enborra,
ipar haizeak astintzen badu
ketan dabilen txondorra,
xoxo beltzak bistaratzen badu
Bianditzeko tontorra
Aginan sortzen den oihartzuna
baldin bada hilezkorra.
Ama, oroitzen zaitudanean
ez naiz hain neska ezkorra
hegazti erraria entzuteko
ez bainintzen jaio gorra.
Zaindu dezadan zilbor hestea
eta ez nire zilborra
sabel berean bizi daitezen
itsasoa ta lehorra.

DOINUA: "Ez nau izutzen negu hurbilak".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaira

Joseba Sarrionandia

«Zalantzan ipini nahi dut normalizazioaren ideia»

Ez da poemarik, ez ipuinik, ez nobelarik, baina orotarik badu Joseba Sarrionandiaren (Iurreta, Bizkaia, 1959) lan berriak. Guziarekin ere, eta egileak genero haietarik guzietarik edan baldin badu ere, batik bat pentsamendu eta gogoeta baliatu ditu zazpi ehun hosto badituen saiakera gaitzean. Galto bat bada ageri liburuaren izenean, *Moroak gara laino artean?*, eta arrapostua ziurra ez deino, irakurtzaileak du gibel-solasa izkiribaturen...

MIXEL ETCHEVERRY

JOSU LANDA





Ezkerrean Jose Lertxundi frantziskanoa. Marokoko Prefektu Apostolikoa zen eta marokoera arruntari buruzko liburuen egilea. Erdiko eta eskumako argazkietan Pedro Hilarion Sarrionandia, frantziskanoa hau ere, eta arrikeraren ikertzailea.

Sei-zazpi urte dituzu eginak liburu honen eginen, baina duela hiru urte ere bazenuen testu bat, izenburu berean, liburu hau egin zitekeen. Nola agitu da oraiko lan honen –hots, bigarren liburuaren–, prozesua?

Lehenengo bertsio hartan historia ahaztu hori ikertzen zen, gramatika haren erreferentziarekin, Leopoldo O'Donnellen tropek Tetuan konkistatu zutenetik 1859ko kanpainan Maroko independentea egin eta Ifniko gerlara arte. Ehun urteko kolonialismoa. Baina, “gramatika” esaten duzu eta ematen du badakizula zertaz ari zaren, edo “fraide”, edo “enpresario” esaten duzunean, edo “nazio”, edo “ejertzi-to”. Baina, nire ustez, misterio handiak dira. Teologia harrigarria bada, are arraroagoa da zelan moldatu den herri osoen bizimodua erlijio baten arabera. Beste misterio handi bat da boterea, nola erabakitzen duen pertsona batek besteak baino gehiago dela, eta besteen nagusi izan daitekeela. Arraroa da, zeren bestea zapaltzea deserosoa izan behar da, ezta? Hori, pertsonen artean ez ezik, nazio-estatuen artean gertatzen bada, kaltea handiagoa da. Beste misterio handi bat dirua da, teologiarako bezainbesteko sinestortasuna behar da ekonomia finantzarioan sinesteko. Hala ere, diru irabaziei begira antolatzen da jendearen bizimodua. Lokarri ezagun eta aldi berean ezezagun horietan harrapaturik bizi gara, armiarma sarean bezala. Gizakiaren askatasuna oso baldintzaturik dago. Botereari eta giza askatasun debekatuari buruzko errele-

“Botereari eta giza askatasun debekatuari buruzko erreflexioa da liburu hasieratik amaierara lotzen duen haria”

“Gaur eguneko egitura ekonomiko eta militarrek, politikoak eta kulturalak ez dira txarrak feudalismokoekin erkatzeko”

xioa da liburu hasieratik amaierara lotzen duen haria.

Ohituak gintuzun ipuin, poema eta gisakoetara, baina ez tamainako saiakera baten irakurtzera. Zerk eragin du zure baitako idazlearen mudatzea? Segurki, irakurtzaileak ez du honelako lanik zuregandik espero...

Beste liburu batzuetan ere saiatu naiz botere sistemen kritika egiten, baina aspektu partzialak aipatuz, modu intuitiboagoan. Oraingoan, nagusi den pentsamendu bakar horrekin, horretara modu zabalago batean bueltatzeko beharra sentitu dut. Goi-koen eta behekoen arteko betiko aldea harri-garria da gaur egun, telebistatik demokraziaz eta zorionaz mintzo zaizkigun artean. Gaur eguneko egitura ekonomiko eta militarrek, politikoak eta kulturalak ez dira txarrak feudalismokoekin erkatzeko. Esaten zaigu sistema hau ezinbestekoa dela, baina ezinbestekotasun hori totalitarismo seinale larria da. Poemak eta literatura berez oso manipularriak dira, intraszendenteak izateaz gainera. Idazleak ere bere papera betetzen du espektakuluan. Gure sistema politiko, ekonomiko, kulturala, dena erabakita dagoela ematen du, bakoitzak bere papera bete besterik ez dagoela. Historia errepasatu eta gure antzerki hori zertan den analizatzen ahalgindu naiz.

Liburu Pedro Hilarionen lanaren berri kondartzeko zelakoan ginen, hots, amagiz hizkuntzen gainean eginiko gramatika hartaz. Baina auni-



tzez harago ere badoa... Zer lan egin zuten Pedro Hilarionek eta Lertxundik, eta zenbat hizkuntza mintzatzen dituzte Marokon?

Arabiera arrunta hitz egiten dute gehienek. Eta hiru hizkuntza berbere egiten dira: tarifit Arrif aldean, tamazight Atlas aldean, eta taxelhit hegoaldean. Ez arabiera arrunta ez amazigera, ez dira ofizialak eta ez dira idazten. Lertxundik arabiera arruntaren gramatika, hiztegia eta abar egin zuen. Pedro Hilarion hizkuntza berberei buruz lan berbera egiten ahalegindu zen. Marokon hizkuntza ofizialak minoritarioak dira, arabiera klasikoa eta frantsesa. Diglosia gogor horretan, gertatzen da askok esaldia arabiera arruntean hastea eta frantsesez amaitzea. 'arantzia deitzen diote hori egiteari. Euskaraz ere ohikoa da, ezta? Esaldiak euskaraz hasi eta erdaraz segitzea...

Bereberren hizkuntza ote duzu estakuru, eskuararen egoeraren aztertzeko? Gibel kapituluetan garbiki ageri da hori... Zein duzu liburuen xedea?

Kosmobisio partzial eta okerrak ditugu denok, ezta? Zalantza hori agertzen da, azaltzen diren pertsonaiei begira. Jendea botereen artean bizi da, haietara moldaturik edo erresistentzia eginez, gezurrak esanez, disimulatuz. Euskaldunek arbola mailatuaren elezahar kontsolatzailea izan dute, euskaldunek ez zutela beste herririk menderatzen, legenda erromantiko eta demokrata-kris-

"Kandido Sasetak, euskaldun independentista, Arrifeko gerla osoa egin behar izan zuen ejertzito espainolean"

taua. Hori gezurra da eta, kasu batzuetan, fabularen tankerakoak dira biografiak. Kandido Sasetak esate baterako, euskaldun independentista, Arrifeko gerla osoa egin behar izan zuen ejertzito espainolean moroen kontra. Gero, Euzko Gudarosteko komandantea zela, Asturias defendatzen hil zen.

Hizkuntzaz eta estatuaz mintzo zara. Ba ote hizkuntzarik botere politikorik ukan ez duenik?

Nahi bezainbat eta gehiago izkiribatu duzu liburuan gai horretaz...

Hizkuntza botere politikorik gabe izan daiteke, jakina. Baina boterea zer den argitu behar da. Bestearen askatasun aukera murrizteko ahalmentzat definitzen du boterea Niklas Luhmannek. Botere politikoa gauza guzietara sartzen da eta hizkuntza erlazioetara ere bai.

Alta, hizkuntza guziek badituzte beren eskubideak, baina, irautekotan, botere politikoaren beharra omen...

Ez dakit horrela planteatu daitekeen. Hizkuntzek ez dute eskubiderik, ez bada agintzen duena etortzen lege batzuk erredaktatzera horretarako, euskarak eskubide batzuk ditu Ondarroan, eta zeharo desberdin batzuk Barakoxen, edo Tafallan. Dena dela, eskubideon subjektua pertsona da. Eta jendeak berez beharrak izaten ditu, ez eskubide batzuk, baizik betebeharrak batzuk. Eta egin behar horien artekoa legeak aldatzea da, hau da, estatuak emandako eskubideen esparrua zabaltzea.

Adibidez, autodeterminazio eskubidea, argi dago ez diola eskubide hori beste inork emango, nork bere burua autodeterminatu behar izaten dela.

El-Raisuni eta Abdelkrim ere azaltzen dira zure liburuan. Zer paper egiteko bazuten Marokoko gerlan?

Mohamed El-Raisuni bandoleroa izan zen, Jebalako jauntxoa, arabiarra. Oswald Spenglerrek idatzi zuen boterearen bidez bila daitekeela harrapakina, edota harrapakinaren bidez boterea. Mohamed El-Raisuni patxa izendatu behar izan zuten enpresaburu greziar-amerikarra bahitu zuenean. Bandolero erromantikoen jenerokoa izan zen, baina hori erresistentzia modu bat ere bazen Maroko kolonialean. Mohamed ben Abdelkrimen kasua oso bestelakoa da, amaziga zen, espainolen enplegatua baina Arrifen nazio-estatu moderno bat fundatzeko ideia izan zuen. Itzelezko botere erlijioso, militar eta ekonomikoen azpian zegoenez gero, haren jokabidea kontraesankorra izan zen. Pedro Hilario-n gramatika agertu zenean, amazigera irakasten hasi zen, Melillan, militar espainolei. Sei urte geroagoa Annualgo eraso antolatatu zuen, hamar milatik gora militar espainol hil ondoren, errepublika independente bat sortzeko Arrifen.

Espainol direnen aldetik, diozu Afrikako gerlak guztiz baldintzatu zuela geroko Espainiako Gerla Zibila.

Gerla Zibila Afrikako Ejertzito irabazle eta harropuztu hark probokatu zuen. Gerla zibila deitzen zaio... Klaro izan zela gerla zibila, gerla guziak dira zibilak, giza jendeak bata bestea hiltzen duelako! Behin gerla hasi eta, jendea multzo bitan banatu behar. Baina Arrifeko Gerla kolonialismo espainolak eragin zuen. Hori oso ondo aztertu du Sebastian Balfourrek...

Menderatuak, gaseztatuak eta errepresio bortitza jasan ondotik, beraz, marokoa zein gisaz zuten esku hartu Espainiako gerla "zibil" deitu horretan?

Manuel Aznarrek bere historian dakarrenez, 75.000 marokoa parte hartu zuten. David Seddon antropologoak Ulad Setut kabilakoak ikertu ondoren esan zuenez, mendeku kontzientziarekin ibili ziren Espainian barrena. Moro gaiztoen estereotipoa indartu zen, baina hor badago tranpa, estereotipo tranposo bat. Durango italiarrek bonbardatu zutela, Gernika alemaniarrek bonbardatu zutela,

Eskerrik asko

"Euskarazko esaeretan ederrenetakoa, eskerrik asko, lan hori egiten lagundu didatenei. Orain zazpi urte amazigerazko gramatika hori Bartzelonan topatu zidanari, idazlan hori aurrera eramateko behar izan ditudan hainbeste liburu eta dokumentu helarazi didatenei, eta okerrak seinalatu dizkidatenei".



"Mohamed El-Raisuni bandoleroa izan zen, Jebalako jauntxoa, arabiarra. Oswald Spenglerrek idatzi zuen boterearen bidez bila daitekeela harrapakina, edota harrapakinaren bidez boterea. Mohamed El-Raisuni patxa izendatu behar izan zuten enpresaburu greziar-amerikarra bahitu zuenean. Bandolero erromantikoen jenerokoa izan zen, baina hori erresistentzia modu bat ere bazen Maroko kolonialean".

bortxaketak eta zakuratzeak moroen gauza zirela. Baina gerlako benetako eragileak beste batzuk ziren. Eragile haien ondokoek agintzen dute gaur egun ere Espainian. Arrifen bota ziren gasetako batzuk La Marañosa fabrika egin ziren, esate baterako, eta arma fabrika hori martxan da oraindik. La Marañosan egiten diren armak non eta Afganistanen erabiltzen dira, edo Saharan, edonon.

"Euskaldunek immigranteekin zerikusia dugu, apur bat arrotzak garelako geure herrian, ez dugu agintzen eta, herri gisa, situazio nahiko irregularrean gaude"

Magrebtar herrialdeak independentzia erdietsi zutenez gero, zein izan da amazig horien egoera? Zer berri ekarri dute Frantziarako eta Espainiarako etorkinek?

Maroko estatu neokoloniala da, sultana "errege" deitzen da orain, eta hor dago Amerikako Estatu Batuen sostenguarekin, Frantzia eta Espainiaren laguntzarekin.

Amazigei dagokienez, deskolonizazioarekin, bertako egitura tradizionalak hondaturik zeudenez gero, 60ko hamarkadatik aurrera

Galtzaileekiko mespretxuaz

Sarrionandia da Pedro Hilarion, Garaikoa (Bizkaia). Sarrionandia zaitugu zuhaur ere, lurretako (Bizkaia) Goiuri eta Garaizar etxaldeetan dituzu familia erroak. Bada ahaidetasunik zuon bion artean?

Ez dakit ahaidetasunik dagoen. Ez dut hori ikertu. Sasoiko seme-alabak izaten gara, askatasun errainu batekin. Pedro Hilarion horrek amazigerazko gramatika egin zuen orain ehun urte baino gehiago, eta saia-kerako abiapuntuetako bat da pertsonaia hori. Beste askoren aztarnak jarraitzen dira, Jose Lertxundirenak esate baterako, Marokoko arabiera arrunta ikasteko

eskuliburu ezagunen autoreak. Mohamed Ben Abdelkrim da liburuko beste pertsonaia nagusi bat, Miguel de Unamuno ere behin eta berriz agertzen da, baita Rudyard Kipling, Voltaire, Axular, Iztueta, Conrad eta beste asko ere. Saiakerak beste abiapuntu bat ere badu, galtzaileekiko mespretxuaren konstatazioa. Historian zehar, eta hori are nabarmenagoa da gaur egun, irabazleak eta boteretsuak miresten dira. Menperatuekiko ezinikusia ohikoa da. Zapalduaren egocera beraren izaera edo portaeragatik justifikatzen da. Sentimendu okerra iruditzen zait.

behialako metropolietarako emigrazioa ohikoa bihurtu zen. Nik ez dakit zer berri ekartzen duen immigranteak, baina ia beti da “besteak”. Immigrantea arrotza da, eta agintzen ez duena, eta situazio irregularrean dagoena. Euskaldunek immigranteekin zerikusia dugula iruditzen zait, apur bat arrotzak garelako geure herrian, ez dugu agintzen eta, herri gisa, situazio nahiko irregularrean gaude. Euskaldunek erlazio eta zerikusi gehiago dugu immigrante amazig edo senegaldarrekin Espainiako bankariekin edo guardia zibilarekin baino. Besteetakoak gara, euskaldun garen aldetik behintzat.

Botere harremanez, Alter eta Ego aipatzen dituzu...

Luhmannek psikologiatik soziologiarako eramandako kontzeptua da, komunikazio sistema eta boterearen egitura azaltzeko: Alter, agintzen duena da, nagusi dena, eta Ego obeditu beharrean dagoena, menpekoa. Immigranteek eta euskaldunek suertea konpartitzen dugula argi ikusten da, esate baterako, epaitegietan. Esan, “euskaldun bat zegoen epaitegian” edo “immigrante bat zegoen epaitegian”, inork ez du pentsatuko juez zegoela. Moroak bezala. Baliteke epailea izatea euskalduna, Mohamed El-Mizian Galiziako kapitan jenerala izan zen frankismoaren denboran, baina, berez jende markatuaz espero dena kondenaren ertzean egotea da.

Euskara batua ere Alter bihur daitekeela aipatzen duzu lerro artean...

Idea da, boterea edozein mailatan gertatzen dela. Ez da urruneko gauza zertan izan behar. Entzuten da batzuetan badugula hizkuntza normalizatu bat, badugula literatura normalizatu bat, homologagarria dela auzokoekin. Zalantzan

“Jendeak berez beharrak izaten ditu, ez eskubide batzuk, baizik betebeharrak. Eta eginbehar horien artekoa legeak aldatzea da”



Eugène Delacroix-en *Étude d'arabe assis* irudiak zabalitzen ditu Moroak gara behelaino artean? liburuko orrialdeak.

ipini nahi dudana normalizazioaren ideia da. Bizi garen mundua normala dela pentsatzen dute batzuek. Esklabismoa, feudalismoa, absolutismoa, inperialismoa gainditu eta orain bai giro onean gaudela. Baina orduan ere gizarte normalean bizi zirela pentsatzen zuten, eta ez zegoela besterik, gainera. Gu bizi garen mundua oso arraroa da, ondo begiratzen badiozu. Amerikanoak ez dakit zer herri bonbardatzen eta, aldi berean, jendea telebistatik egon daiteke lasai espektakulari begira. Oso arraroa da, zer zientzia-fikzio handiagoa bizi garen mundua baino! ■

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Maila oneko finalean

Estiballes koska bat gorago

Finaleko gaztetasuna eta txapela lortzeko bide irekia bistakoak ziren BECen, 4.200 ikusleren aurrean, zortzi finalistak oholtzara igo zirenean: Etxahun Lekue, Arkaitz Estiballes, Beñat Ugartetxea, Jone Uria, Peio Ormazabal, Miren Amuriza, Onintza Enbeita eta Eneko Abasolo "Abarkas". Aurreko txapelaldunak finalean aritu gabe, eta zortzitik bost finalista berri izanik, bazen beldur halako bat maila emango zuten. Baina bertsolariek saio ostean esan zuten, finala "duina baino gehixeago" izan zen, eta "balekoa baino maila altuagoa" eman zuten.

MIREN IBARLUZEA

Argazkiak: Dani Blanco

17:30EAN argiak ilundu eta txapelketako argazki muntaia ikusi genuen oholtzako pantaila handian (eskualdetako txapelketak, kanporaketak, finalerdiak...). Jendeak, euren eskualdetako bertsolariak, euren faboritoak... ikustean txalo jotzen zuten. Modu aproposa izan zen giroa berotzeko, ezen hunkigarria izan baitzen finalera heldu aurreko bidea gogora ekartzea. Izan ere, uda aurretik eskualdeetako txapelketak bukatuta, udagoiena hasi berri ekin baitzioten Bizkaiko bertsolariek txapelketari.

Estiballes besteak baino koska bat gorago

Akatsik gabeko saioa egin zuen Arkaitz Estiballesek, eta lan denak txukun eginagatik, koskarik handiena kartzelakoan atera zuen, "hotza etorritakoan jantzitako txaketan telefono zenbaki bat topatu duzu" gaiari erantzunda: "Lau urtez egon naiz kartzelan ta gaixotu egin naiz aurten. / Horrexegatik epaile batek kartzelaldia dit eten. / Konfinatuta nago Parisen, / gogoan kontra hemen bizitzen. / Ta eskuak dauzkat hozten. / Txamarran sartu ditu eskuak, ta begira zer dan irten. / CNiko bi poliziak aspaldi eman zidaten. / Arazoren bat bada, gizona, / zuk lasai deitu ezazu hona". / Horixe esan ziguten. / Ta atxilotu ninduten" bota zuen. Honela ekarri zuen bigarrena: "Aspaldi hontan kalean nago baina enabil oso baikor: / nire atzetik ustekabeen beti kotxeren bat dator. / Gaurkoan ere ze katxondeo: / C4 bat ta bi Ford Mondeo, / neure atzetik egoskor. / Telefonoa hartu dut eta zenbakira deitu

Akatsik gabeko saioa egin zuen Arkaitz Estiballesek, eta koskarik handiena kartzelakoan atera zuen

bizkor. / Beste aldetik ahots goxo bat: 'Ministerio del interior'. / Ta esan diot: 'naiz Iurrebaso, / zuk ezagutzen nauzu akaso'. / 'Abora se pone, sí señor'. / Baina ez da jarri inor". Eta hirugarrena: "Atzetik gizon batek esan dit: 'Telefono hori laga'. / Ez da euskalduna baina, ordea, ondo egiten du euskara. / 'Telefono hori erretadago, / eta ez deitu horra gehiago. / Ez zaitetz bihurtu traba. / Baina prozesu berri hau ere, tratatuta dago hara, / ta gure ustez horbertan ere zu garrantzitsua zara. / Bi aste barru berriz Genevan, / orain lau urte egin zen eran, / joan helbide honetara, / ta han elkartuko gara".

Gainerakoek ere ondo bete zuten euren beharra, batzuetan hobixeago, besteetan beherago. Hori bai, nor bere estiloan, zein baino zein: Etxahun Lekue puntuak biltzen-biltzen, ariketa guztietan, teknika zuzen-zuzen eta bizkaiera freskoan; Miren Amuriza, bertsomolde gozoz, publikoaren bihotzetara helduta; Onintza Enbeita, ofizioko saioetan bere rolean ederto sartuta; Beñat Ugartetxea, bertsolari zirtolarien paperean, plazako kantari lege; Jone Uria, zirikatzaile ofiziotan; Peio Ormaetxea, natural-natural; eta berdin Eneko Abasolo, barru-barrutik eta urteetan egindako lana erakutsi guran.

Ale onenak

Hasierako agurrak kantatu eta ostean, saio puntuagarria etorri zen. Ondo hasi zuten zortziko handiko ariketa Estiballesek eta Lekuek, euskara ikaslegai etorkinen pape-

rean, gehiegi arriskatu gabe, txukun. Hasierako asmoa bete egin zuten biek ere; akatsik egin gabe saioa konfiantzaz hasi gura zuten, nolabait, eta elkarren kontra egin barik, biak bietara kantuan ibilita, konfiantzaz hasia lortu zuten, bai eta gainerako bertsolariei konfiantzarako bidea ematea ere.

Zortziko txikiko ariketan Lekuek eta Uriak egindako saioa da aipagarria. Banatu zirela eta, despedida egin omen zieten lagunak, eta ordu txikitan diskoteka berean topo eginda, Jone Uria zirikatzaile etorri zen: “Garai zaharretan legez, banator galdezka: / Aupa soltera nago, zu ere bai, ezta?”. Etxahun Lekuek ondoren: “Neuk be gurago zaitut, maitale bezala”. Ateraldi polita izan zuen Uriak beste behin ere hirugarren bertsioan: “Bigarren parte on bat, nola ez espero, / lehenengoa hain txarra irten eta gero”. Ormaetxea eta Estiballes sonotona behar zuten zaharren paperean ari zirela, ahotsa ederki baliatu zuen Estiballesek, gora egiten zuen lagunak entzutea gura zuen hitzak aipatzean, eta behera, berriz, lagunari gustatuko ez zitzaizkion berbak esatean. Ateraldi polita izan zuen Ormaetxeak, berak entzun gura zuena zer zen erantzunda. Lehen ere esan dugu Enbeita bere paperean sartuta ibili zela ofizioetan, eta azken puntu ederra utzi zuen, kasurako, urteetan kartzelatik ihes egiteko zuloa egiten ibilitakoaren ahotik: “Nahiz ta kondena amaitu zuloa

Bertsolariek ondo bete zuten euren beharra, nork bere estiloan.

Puntuari erantzutean ale politak entzun ziren. Goraipatzekoa, Beñat Ugartetxeak utzitakoa

baino lehen, / eguzkiagaz amets egin nahi dot hemen”.

Hamarreko txikiko ariketan, Uriak eta Estiballesek egindako ofizioan banatu ziren puntu gehien. Keinu egin zioten, oholtzatik, biek ere kantukide duten Fredi Paiari eta haren lagunei. Lekuek ere Gabon gaua lanean pasatu behar zuen medikuaren paperean ariketa txukuna egin zuen, goitik beherakoa. Banandutako aita zen Enbeita ariketa horretan, Ormaetxea semeari bisitan joandakoa, eta diskurtso sinesgarria ondu zuen Enbeitak: “Kustodia konturik gaur hemen ez aipa, / hori umeentzako konplikaua baita. / Gauzak holan eztira, semea, neuk nahita. / Hase-rra gaindituz behar nozu maita, / zuri gustau edo ez neu naz zure aita”.

PUNTUAKETA

Arkaitz Estiballes	947
Etxahun Lekue	889,5
Miren Amuriza	498
Onintza Enbeita	493,5
Beñat Ugartetxea	492,5
Jone Uria	483
Peio Ormazabal	445
Eneko Abasolo “Abarkas”	438,5



baga-biga

MUSIKA
BULEGO
INTEGRALA

**MUSIKAN
BERRIENA**



ESNE BELTZA
NOA
LP



UNE
AKUSTIKOAK
ETA BESTELAKO
UNEAK




GATIBU
ZUZENEAN
BIZITZEKO
GOGOA
DVD+CD

SUTURA
SUEÑOS
PODRIDOS



**KORRONTZI
& OINKARI**
INFERNUKO
HAUSPOA
DVD



TRASTORNA2
ESCAPANDO

ZAIN
XXI. MENDEKO
PIRATAK



KHERAU
MUNDUAN
ORTOZIK

ROCKAINA
EN EL AIRE

baga-biga musika ideiak
telef. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com



Puntuari erantzutean ihesaldi bat edo beste kenduta, ale politak ere entzun ziren. Goraipatzeko, bere-bere estiloan Beñat Ugartetxeak utzitakoa. “Zenbat urtegaz hasi zinen zu bertsoan?” bota zuen gaijartzaileak eta: “bigaz amesten edo nengoela lotan, / bostekin aitarekin behiak jezten kortan, / ta atzeko hauekin txosnetan askotan”.

Estiballes eta Lekue nabarmendu ziren bakarkako lanetan, biak ere “Izarren hautsa” doinuan kantari. Lehena, desguazean topatutako lehenengo kotxeari kantari aritu zen. Honela ondu zuen saioko bertsorik puntuatuen: “Retrobisore bat behar dut ta, desguazeraino goazen, / hara helduta puntu batera, joan dira begiak zuzen: / aiba hor dago Opel Corsita, / garai batean bezain polita, / eta hasi naiz hunkitzen. / Gogoratuaz festarik festa, nola ginen gu ibiltzen. / Baina larregi sakatu nion, ta noski, motorra hil zen. / Oraindik dauka Bilboko plaka, / ta ‘Nuklearririk? ez’-en pegata. / Eta hasi naiz oroitzen, / zeinen zoriontsua nintzen”. Nabarmentzekoa da bertsolariak deskribapenatarako duen

Lehen aldiz BECen kantatu zuten bertsolariek aitortu zuten hasieran, aretoa goitik ikusi zutenean, beldur apur bat sentitu zutela. Baina oholtzatik publikoa ikusita bildua iruditutza izan, eta ez aurretik uste bezain handi.

gaitasuna, eta erreferentziak bertsoetara ekartzekoa, askotan, errima bihurtuz, gainera. Etxahun Lekue, berriz, armairuaren aurrean, umetxo baten ahotik aritu zen, paperean ederto sartuta. “Pijama jantzi eta eskuan hiru-lau pelutxe lodi, / loak hartzeko kontaten deustez amak hiru-lau istori. / Ta telebistan zenbat marrazki, / burruka, odol-putzu ta guzti, / bada nahiko kategori. / Oin armairuan entzunak dodaz soinu arraro bat edo bi, / ta urruma bat, ta horregaitik nau beldurrez gori-gori. / Baina mamurik ez dagoala, / ta loak hartu gagi azala, / dinoskue ume askori. / Ta orduan, zer da

hori?” eta “Ama hor zer dau? egiten deutset nik egunero galdera. / Zabaldutako ez dago ezer, berak erantzun ostera. / Baina zeozer ziur badago, / ta horregaitik ikaraz nago. / Hortik urtengo ete da? / Amets gaiztoak dodaz gauero, gauero nabil artega. / Gurago neuke beste norabait ikustea irteera. / Urten orduko hortik barrutik, / korrika joan behar dot hemetik. / Noan betiko antzera, aita ta aman ohera”. Miren Amurizak eta Jone Uriak ere ariketa polita egin zuten, gaiei originaltasunez erantzunda.

Buruz burukoan, bertsokide eta lagun, Lekue eta Estiballesek keinu ederra egin zieten bertsozaleek ondo ezagutzen dituzten Kristina Mardarasi eta Justori, txapelketako saioretara koaderno eskutan doazen zaleen ahotik kantari. Publikoa bezain hurbil aritu ziren kantari bi bertsolariak.

Sari-banaketa ere hunkigarria izan zen: eskuak oinarri hartuta lanean aritutakoei eskerrak emateko bideoa, txapela janztea, “Aita Luis”en bertsoa, eskaintzak, malkoak, irriak, besarkadak... ■

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Arkaitz Estiballes

«Hurbiletik kantatuta asmatu neban»

Txapela jantzi eta biharamun iluntzean, Arkaitz Estiballesen hurreko lagunartera bildu gara, harekin hitz batzuk trukatuta txapelketaren, finalaren zein bertsolaritzaren inguruko gogoeta batzuk batu guran. Bazkaloste goxoa luzatuta lasai zeuden Arkaitz, umeak, hurrekoak... ganberroenek ekarritako konfeti artean. Berbetarako tarte ostu diogu, aparteko mahaitxoan.

FINALEKO MOMENTU HUNKIGARRIEZ galdetu eta hiru ekarri dizkigu: lehenengoa, hasi aurretik ikasle izandako Peio Ormazabal hartu eta oholtzara eraman zueneko, bertan elkarrekin eserita elkarrekin bizi izandako unea berezia izan zen, seguruenik, bientzat; bigarrena, buruz burukora Etxahun Lekuerekin pasatu zeneko; izan ere, elkarrekin entrenatu dute, eta sarri-sarri kantatzen dute “buruz buru”; hirugarrena, noski, txapela jantzi zioteneko. Luis Baraiazarrak txapela jantzi zionean atzera begira jarri ere jarri zela aitortu digu Arkaitzek. “Aita Luis” bera askotan izan du epaile, eta nolabait, bertsotan egindako bidea gogoratu zuen Arkaitzek. Asko hunkitu da Arkaitz prentsako argazkiak ikusita, une politak bizi izan zituen BECen.

Sortzeko momentuetan sufritu egin bazuen ere, oholtza gainean gozatu egin zuela diosku Arkaitzek, asko hitz egin zuela kantuki-deekin, jendea ikusi egin zuela: lagunak, aita-ama... eta gainera, koen bertsoak ere entzun zituela.

Zertan asmatu zuen eta “hurbiletik kantatu neba, horretan asmatu neban” diosku. Kartzelako gaian hurreko gaiari kantatu ziola, eta horrek istorioa eraikitzen lagundu ziola. Une batzutan, baina, erreferentziak egiterakoan, dudak ere izan omen zituen (Fredri Paiaren lagunak aipatzean, kasurako; zein Bizkaiko Bertsotaleen artean hain ezagun diren Kristina Mardaras edo Justo aipatzean...); hala ere, haiei omenaldi modukoa egin izanaz gainera, horrek lagundu egin ei zion bertsotan ondo sentitzen, plazan kantatuko balu legez aritzen saiatu baitzen. Izan ere, Arkaitzek bera ez dela txapelketazale dio, formatu txikian, 40-60 laguneko bertso-afarian, berbarako, askoz erosoago sentitzen dela.

Pena bat ere izan zuen finalean, ordea: txapelketetako finaletan zein bestelako saioetan bertsolagun izandako Fredi Paia finalean

egon ez izana. Belaunaldi aldaketen auziarekin lotu dugu gaia. Gazteak finalera salto egin ondo dago, ondo egindako lanaren fruitua ere bada; bestalde, aurreko belaunaldiek bertan egoteari eustea ere garrantzitsua den aldetik, badauka alde negatiboa ere. Arrisku bat ere bada: txapelketarako euren burua “zahar” ikustearren txapelketan kantatzeari uztea. Arkaitzen ustez, “ona da belaunaldi batek eustea”.

Finalean bertsolari gazteek babes handia izan zutela ikusleengandik, eta oso eskertzekoa dela hori komentatu digu Arkaitz Estiballesek. Dena den, babes hori, bereziki gero, plazetan, eman behar zaiela bertsolari gazteei, horixe aldarrikatzen du berak. Azken finean, bertan hezten dira, eta bertan hobetzen dute.

Txapelaz gainera, bertsorik puntuatua bereetako bat izan zen, 52 puntu jaso zituen, eta ordea 52 txakolin botila jasoko ditu. Horiekin zer egingo ote duen galdetu diogu. Gerora jakin zuela Beñat Ugartetxearen bertso batek (puntu erantzunekoak) berearenak beste puntu jaso zituela, baina Arkaitzek berak 52 puntuko bertso bi zituenez, saria hartatik jaso zuela. Beñaten bertsoa

“antologikoa” iruditu zitzaizola eta botilen erdiak hari oparituko dizkiola dio.

Bizkaiko bertsolaritzaz ere galdetu diogu, ea nola ikusten duen. Berak Bizkaia bertsotarako gune naturalizat duela dio, oso eroso sentitzen dela Bizkaiko plazetan, plazera dela harentzat Bizkaiko plazetan kantatzea. Gainera, keizateko motiborik ez omen du Arkaitzek: “Plaza kopuru dextentea deukot eta saio gehienak Bizkaian”.

Egunokin hainbat komunikabideri kasu egin eta ostean, bere bertso-panorama gehiegi ere ez dela aldatuko diosku, hainbat saio dituela, eta saioz saio, orain arte legez, duena ematen saiatuko dela. ■



Liburuak

KRITIKA

Gasolindegian. Yurre Ugarte.
Alberdania. 98 orrialde. 14,50 euro.

Helduen literatura

Gema Lasarte



Opera postmoderno bateko eszenatoki aproposa

ZAZPI KONTAKIZUNEZ osatzen den nobela hau, edota narrazio motz hau, nahasketa askoren paradigma da. Horrela, liburuaren azalean agertzen zaigun gasolindegia Londresen ikusten diren telefono kabinen traza handiagoa hartzen diogu, gasolindegietako gasolina betetzeko tramankuluena baino. Baina ez, Irun aldean, Behobia aldean nonbait kokatua dagoen gasolindegia da. Espazio hori aski erreala izanik baina, fantasia guztien bilgune ere bihurtzen da. Izan ere, Ugarteren kontakizun honek errealitatetik asko du eta fantasiatik beste asko. Mugak apurtu ditu eta edozein aitzaki narratibo erabiltzen du batetik bestera salto egiteko. Protagonista bera aski erreala da, izan ere, Arte Ederrak ikasi arren gasolindegian baitihardu lanean mileurista gisa. Halere, txiki-txikitatik koadroak margotzeari utzi zionetik koreografiarako, fantasiarako zale-tasuna erakutsi eta operetako eszenatokiak antolatzen aritu da.

Gasolindegia berriz, “opera postmoderno bateko eszenatoki aproposa” da. Gasolindegitik gertu ordea, Arantoki baserria dago. Arantokiko baserriko Rokek herriko lehenengo puba ireki zuen, Funkytown izeneko. Istorioak errealitatetik fantasiarako etengabeko jauzian baldin badaude, espazioak ere hartaratu dira eta zer esanik ez pertsonaiak.

Protagonistaren inguruan pertsonaia bitxiak lotuko dira bakoitzak bere istorioaren oinorde. Notre Dameko Konkorduna, banpiroen gisara argazkietan ateratzen ez dena; Ines Land dantzaria, hegan egiten zuena; Claudiu errumaniarra, Sugeen Uhartean, Danubio bukatzen den Itsaso Beltzaren inguruan jaioa; Peru, greziar arte klasikoaren “kurosa”. Arantoki baserriko Roke, bele beltza. Veronika, Peru atzetik segitzen duen emakume maitemindua edota Peruk burutik ezin kendu duen emakumea. Pertsonaia bakoitzak bere istorioa du eta protagonistari lotzen zaio gasolindegia inguruan. Istorio hauek guztiak gehienetan fantastikoak dira nahiz eta errealitatean oina hartu. Fantasia horren errekreazioa batzubitutuan pinturari etengabe egiten zaizkion erreferentzietan kokatzen da. Gasolindegia ondoan dagoen Renoir-en soroa, Patinirren koadroak, Botticelliren *Venusaren jaiotza*. Protagonistak lehen pertsonan iragana eta oraina lotzen dituen narrazio motz honetan, errealismo fantastikoaren zantzuak aipatu beharko genituzke.

Eleberri honetatik beste zerbait azpimarratu beharko bagenu, koreografia lana izango litzateke, izan ere, espazioak oso ondo adieraziak eta koloreztatuak baitaude eta espazio bakoitzak bere istorioa eta bere pertsonaiak baititu. Espazialitatetik, koloreetatik jaio dira pertsonaien karakterizazioak eta narrazioaren tonuak. Gorriak, suaren semantikatik eratorriak, pixka bat surrealistikak, errealistikak eta onirikoak era berean. ■

‘Erlea’ aldizkariaren hirugarren zenbakia

Euskaltzaindiak kaleratzen duen 1.700en aldizkariak badu zenbaki berria. Eta ohiko moduan, hortzak izerditan jartzeko moduko sinadurak bildu ditu oraingoan ere *Erleak*: batzuk aipatzeagatik, Eider Rodriguezen eta Xabier Montoiaren ipuin bana, Edorta Jimenezen poema bat, Koldo Izagirrerren, Joseba



Erlea 3.
Batzuen artean.
Euskaltzaindia.
128 orrialde.
12 euro.

Sarrionandiaren, Bernardo Atxagaren testuak; Unai Elorriagaren, Beñat Sarasolaren, Fermin Etxegoienaren, Aritz Galarragaren liburu gomendioak; M o h a m e d Xukriri elkarriketa... Literatur zalea asezteko edukiak, ohiko edizio txukunean. ■

‘Jakín’ aldizkariaren 180. zenbakia

Joseba Intxaustiri elkarrizketa luzea egin dio Imanol Muruak *Jakín* aldizkariaren azken zenbakian. Euskararen historia sozialaren ikertzailea da Intxausti, urte luzetan jarduna da euskararen aldeko lanean eta ez dira ahaztekoak gaztetan *Jakinen* orrialdeetatik, garbizalekeriari nola egin zion aurre. Gainera, Julen Zabalo, Ilune Basterrak, Iker Iraolak eta Txoli Mateosek *1950-1980ko hamarkadetako etorkinen integrazio moduak Hego Euskal Herrian* artikulua sinatu dute. Eta, noski, *Egunen Gurgilean* sailean ohiko kolaboratzaileen artikulua topa daitezke literaturaz, soziolinguistikaz, arteaz eta zientziaz. ■

Jakín 180.
Batzuen artean.
Jakín.
136 orrialde.
12 euro.



Diskoak

IKER BARANDIARAN



Artefactos mágicos.
Lobo Eléctrico.
Autoekoizpena.
Iraupena: 37'05".
5 euro (CD) 12 euro (LP).

Azal melodikoagoa eta anitzagoa aldatu du piztiak

OSO URRUN dagoen lurraldeko negua pasa da jada eta otso elektrikoa lozorroak irten da gainean azal berria duela. Aldatuta dator, Guantxe bateria jotzailea taldean erabat finkatu delako eta bestelako sonoritate eta estiloak lantzen hasi direlako. Iraganean izan zuten joera, hau da, Stoogesen eromena, AC/DCren rock itsaskorra eta Black Sabbathen intentsitate pausatua ageri dira, baina lehen baino askoz gutxiago. Horren ordean, bestelako bidezidorrak

ikuskatzen hasi dira: 60ko garage-popa, TSOOLen giro sakonak, Zen Guerrillaren pareko rock-and-roll eskizoa eta *Retorno al planeta polimorfia* moduko hitak, besteak beste. Hitzek dagokionez, Santiren imaginarioak ez dauka parekorik. Bestalde, nabarmendu beharra dago lana CDan ere kaleratu badute ere, biniloaren aurkezpena izugarri landu dutela.

www.myspace.com/loboelectrico

Santi - Lobo Eléctrico

«Ez gaude ohituta estudioetara, gu batez ere zuzeneko taldea gara»

Disko hau zuen kabuz argitaratzeaz gain, zuek arduratu zarete grabazioaren ekoizpenaz. Zaila da buruan duzuen soinua grabazioan lortzea?

Zigilu propioa sortu dugu, hobe delako guztia geuk egitea. Grabazioei dagokienez, ez gaude ohituta estudioetara, gu batez ere zuzeneko taldea garelako. Baina taldearekin esperimentatu nahi izaten dugu eta soinuarekin ere ahalegina egin dugu; horretaz arduratu da Guantxe.

Zuen lehenengo diskoarekin eta singleekin alderatuta, musika ildo dezente aldatu duzue. Hau melodikoagoa dela esango nuke...

Bai, egia da aldaketa handia dagoe-la, nahiz eta gu ez garen horretaz hainbeste ohartzen. Denbora asko igaro da eta azken finean, gu mutanteak gara, etengabe mutatzten ari gara. Melodiari dagokionez, uste dut arrazoiak daukazula, melodiak landuago daude orain, baina estiloetan nahasketa handia dago, gu ere bakoitza adar batekoak garelako.



Zer gertatuko da 2013an, Lobo Eléctricorekin erabat lotuta dagoen zenbakidun urtean?

Jakin nahiko nuke! [barrez]. Orain dela urte asko Jorge eta biok Brasi-

len izan ginenean 2013arekin obsesionatzen hasi nintzen. Gero jakin nuen mayen profezia baten arabera, 2013ko abenduan beraien historia bukatu eta zerbait berria hasiko dela. Zer etorriko den jakin-minez nago.

Ganesha dago diskoaren azalean...

Bai, oso jaingo famatua da Indian, eta norbaitek negozio berri bat hasi behar badu opariak egiten dizkiote. Guk ere antzeko zerbait egin dugu, gure "gailu magikoak" aurki ditzaketena oztupoak suntsitzeko.

Diskoaren presentazioa asko landu duzue, bideoklipa ere bai... Profesionalizatu zarete, serio hartu duzue taldea?

Itxura hori hartu al dugu? [barrez].

Ez dut uste profesionalagoak garenik, baina ahalegintzen gara serioago hartzen. Hala ere, batzuetan desastre hutsa gara, eta gorabehera horiek ez baleude, gure esentzia galduko genuke. ■

Ezpalak

JON TORNER

Tabakalerak 70 milioi euroko aurrekontua izango du



DONOSTIAKO Tabakalerako Administrazio Kontseilua osatzen duten hiru erakundeek –Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak–, zentroa berritzeko lanak 2011ko apirilean hasiko dituztela iragarri dute, eta proiektuak 70 milioi euroko aurrekontua izango duela, hasieran aurreikusi baino 5 milioi euro gutxiago. Adierazi dutenez, obrak 2015erako bukatuko dituzte. Gainera, jakinarazi dute laugarren bazkide baten bila ari direla, gastuei errazago aurre egite aldera.

‘Iduzkilore’ obraren DVDa atera du Lapurdi 1609-2009 elkarteak

XVII. MENDEKO sorgin ehiza eta inkisizioaren errepresioa azaleratzeko sortu zuten Manex Fuchsek eta Mixel Jorajuriak *Iduzkilore* ikusgarria, Lapurdi 1609-2009 elkartearen eskutik, eta orain DVDan kaleratu dute antzezlanak. Elkartek modu horretan eman dio amaiera bere ibilbideari. Hainbat hilabetez erakusketak, hitzaldiak eta ekitaldiak antolatu ditu, gertaera haien “egia historikoa” ezagutarazteko asmoz, eta lan hori guztia liburu batean jaso dute.

● **Sokaide taldeko kideak elkarrizketatu ditu Entzun aldizkariak:** «Folka Euskal Herrian, alaia izatetik serioa izatera pasa da. Ostiral edo larunbat gauez kalean emandako zuzeneko arrakastatsuetatik, igande arratseko aulkidun zuzenekoetara, zein antzoki hotz eta serioetara pasa delakoan gaude. Adibidez, asteburu honetan Bartzelonan egon gara eta harrigarria izan da bertako publikoak egindako harrera. Areto guztia saltoka, jendea dantzan eta oihuka, izugarria izan da! Pena da Euskal Herriko zenbait tokitan haxe bera lortzea horren zaila izatea. Gure helburuetako bat hori lortzea da eta badirudi, azkenaldian joera aldatzen ari dela».

Darko Drijevic (Montenegro) ilustratzaileak irabazi du Barakaldoko Nazioarteko Umore Grafikoa Lehiaketa. 300 parte-hartzaile baino gehiago lehiatu dira hamargarren edizioan. Bigarren saria Leandro Ezequiel Martinezek (Argentina) jaso du, eta hirugarrena Nikola Listsek (Kroazia). Eskuinean, irabazlearen marrazkia.



Iñaki Ruiz de Egin artistaren *Caligromías* erakusketa uda osoan izan da ikusgai Urdazubiko (Nafarroa) San Salvador monastegiko klaustroan. Orain, eskultore donostiarrak bi pieza handi paratu ditu leku horretan: 450 kiloko *Kuboaren jaiotza* izenekoa eta 3.000 kiloko *Altxa zaitetz* izenekoa. Horrez gain, monastegian beste hainbat obra behatu daitezke urtarilaren 2ra arte, 50 urteko *pintura Euskal Herrian* izeneko erakusketan, tartean daude Jose Luis Zume-taren margolanak.



Xabier Makazagaren *El manual del torturador español* liburua (Txalaparta, 2009) aurkako kanpaina salatu dute Euskal Herriko 104 liburuzainek: “Kezkatuta gaude zentsura-kasu honengatik, eta salatu egin nahi dugu, aurrerantzean politikoak arlo profesionalean sar ez daitezken. (...) Liburutegi publikoetako funtsek eta zerbitzuek ez dute

inongo zentsura ideologiko, politiko edo erlijiosori loturik egon behar, ezta presio komertzialei ere. Txalapartak Interneten jarri du liburu osoa, doan deskargatzeko moduan.

Fernando Beorlegi (Campanas, Nafarroa, 1928-Eibar, Gipuzkoa, 2008) margolariaren atzera begirako erakusketa jaso du Lizarrako (Nafarroa) Gustavo de Maeztu museoak, *Gogoaren pintzelkada garratzak* izenburupean. Bere seme Mikel Beorlegiren hitzetan, “hamaika *ismo* erabil daitezke haren lana sailkatzen saiatzeko, baina oso zaila da. Unearen arabera aukeratzeko zuen errealitateaz zuen ikuspegia nola islatu”. Erakusketa otsailaren 28ra arte izango da zabalik.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Don Norbait

1999. URTEA IZANGO ZEN, udaberri partean. Donostiako Trinitate plazan kontzertua: Bide Ertzean eta... Etsaiak. Eta, egia aitortzeko, bigarren taldea ikustera joanak ginen batez ere. Besteaz ezer gutxi jakin, "Deabruak Teilatuetan-ekoen talde berria" esan zuen lagun batek. Aurkeztu berria zuten lehen diskoa (oker ez banago) eta gau hartan (honetan ez nago oker) publikoak harrera hotz samarra egin zien. Abstraktuan ez hitz egiteko: genien. Eta zehatzago: nien.

Animalia kapritxosoa da gustua, baina denborarekin beti itzultzen da lehenago ibilitako bideetatik. Pazientzia izanez gero, bigarren aukera ematen dizu ehizatzeke. Hamaika urte beranduago karrerako soinu-banda bihurtua zitzaidan Bide Ertzean, ikusiak nituen zuzenean, baina inoiz ez Donostian. Eta Trinitatetik hurbil tokatu aukera, Victoria Eugenia antzokian, joan den asteko ostegunean.

Tolosarrek *Don Inorrez* diskoko kantekin hasi zuten saioa eta segituan konturatu ginen hura ez zela normala ikusten ditugun kontzertuen antzekoa izango. Bazeukala beste zerbait. Eskenatokiak, atzeko pantailan proiektatutako irudiek, Imanol Ubedak akustikoa afinatu arteko tartetan erakutsi zuen *storyteller* gaitasunak... pelikula bat zirudien momentu batzuetan; aberastasun kromatikoa handiko ikuskizuna. *Zuk esan* jotzen hasi zirenean kasu, gorri bizi batek hartu zuen atzeko plano, musikariak itzal, Quentin Tarantinoren *Kill Bill*-eko eszena bat gogoraraziz.

Soinua ere txit ondo, kantetako ñabardura txikienez ohartzeko aukera eman zuen. Tontakeria dirudi, baina segun eta zein abestitan diferentzia marka dezaake. Adibidez, Gorka Urbizu *Ez dut atzera egingo* kantan agertokira gonbidatu zuten bigarren ahotsa egitera eta



XA2 / CC-BY-SA

Bide Ertzean *Leidor Sessions* zuzeneko diskoa grabatu zuten egunean.

perfektu entzun genuen Ubedaren atzeko planoan. Tamalez, iruditzen zait ez dela ohikoa euskal taldeen kontzertuetan horrelako baliabide teknikoak edukitzea; galdu egiten ditugu, kalitatezko aretoz aberats ez ibiltzeagatik, musikaren detaile asko.

Eta nabarmentzekoa Joserra Senperenak nola janzten duen lau taldekideen lana hammondarekin (batez ere) eta bestelako teklek, psikodeliara hurbiltzen diren momentuak sortuz. Kontzertuaren "baina" bakarra, Xabier Leteren *Ni naiz*en bertsioa izan zela esango nuke. Oiartzuarrak ahots atormentatuz kantatzen zuen jatorrizko hura iltzatuegi daukadalak izango da, baina ez ninduen erabat konbentzitu Bide Ertzeanen bertsioak.

Gainontzean *chapeau: Hotel Bel-Air* edo *Badator eguna* bezalako kantak klasikoak dira dagoeneko (bide batez, oraingoan lehen kanta horretako koadroa Zumetarena izan zen, diskoa Deabruena) baina *Don Inorrez*ekoekin gustura ezkontzen dira zuzenean. Ez da harritzekoa. Joan den astean Victoria Eugenia ikusi genituen musikariak aspaldi irabazi zuten Don Norbait izena. ■

Oxangoiti
Hotel Jauregia

Gamarra kalea, 2
Lekeitio (Bizkaia)
94 465 05 55 / 659 393 928
www.oxangoiti.net



ANA ZAMBRANO

MINGOTS ----- MESPREZAGARRI	↖	ERLIJO ORDENA BATEKO LEKAIME ----- ENBOR	↖	NAFARROAKO HERRIA	 DANI BLANCO	ZATI, PUSKA ----- ITOGIN	↖	PERTSONAIAREN IZENA ----- ATZENKOR	↖	GUZTIEI DAGOKIENA ----- AITAORDE, AITAIZUNA	↖
... EGIN, HOZKATU ----- ZUNTZA	↗						BELAR PURGAGARRI ----- NONBAIT	↗			
↖				LISTUA ----- BI ELEKTRODOKO GAILU		↖	LERROAK, ERRENKADAK ----- NAFARROAKO HERRIA	↖			
TONA ----- NORENTZAT ATZIKIA	↗	BERAZ ----- PERTSONAIAREN ABIZENA	↗					HEGAZTI BELTZA ----- NAFARROAKO HERRIA	↗		
↖				TREBEAK, GAITUAK ----- BARRENKORRA	↗				ARGONAREN SINBOLOA ----- NAHASTU	↗	
ADITU, LETRAGIZON	GAUBEAKO MENDIA ----- MESEDE, FABORE	↗			... EGAÑA, BERTSOLARIA ----- USU, MAIZ	↗					TXERRIA
↖	↖						ESKUAZ HELDU ----- UKAPENA	↗			
SELENIOA ----- HAUTSAREN ARAKNIDO	↗		PREZIOA, BALIOA ----- RONA	↗				ZIZARE ----- DUT (ALDERANTZIZ)	↗		
↖			↖		NAFARROAKO HERRIA ----- LANDA, SALBU	↗			↖		500 ----- LARRE ARE GABE
24 ORDU (PL) ----- HIZKUNTZA BATEN DESKRIBAPENA	↗					MAITALEA ----- KILOA	↗				↖
↖								DAUDE	↗		

Kike Amonarrizen umorea



Hil zenetik
aurten 65
urte bete
direla eta,
E t s a i a k
astebeteko
b a i m e n a
eman zion
udan Hitle-
rri infernua

Lurrera jaitsi eta bi egunera,
ordea, bueltan zen infernuan:

– Dagoeneko hemen al zara? –
galdetu zion Etsaiak—. Zer dela
eta itzuli zara horren azkar?

– Ezin izan dut gehiago jasan hor behean ikusitakoa –erantzun zion Hitlerrek–. Egin kontu: orain alemanak dira negoziokoak egiten dituztenak eta juduak, aldiz, gerra egiten dutenak!

	M	P				A	T	O
B	I	L	A	U		I	T	U
K	O	S	K			A	H	A
H	A	R	I	A	T	I	L	A
T	O	R	D	U	A	Z	O	Z
T	Z	A	T	I	A	O	A	R
		R	A	S	O	A	N	I
L	E	T	R	A	D	U	N	U
S	E	R	O	K	O	S	T	A
A	K	A	R	O	U	Z	I	T
	E	G	U	N	A	K	O	N
G	R	A	M	A	T	I	K	A

Elhuyar, zientziarekiko jakin-mina
asetzeko formulak:

10 urte
8 urte



[Esperimentuak + Zz izpiak]
dx = Armix max mix

16 urte
12 urte



[Abentura zientifikoaak
+ ZzL izpiak] dx =
Simon Bloom,
grabitatearen zaindaria

∞ urte
16 urte



[Zientzia-
dibulgazioa +
Z izpiak] dx =
Sendabide ala Iruzurbide

www.elhuyar.org/edizioak



Liburu
elektronikoan
ere eskuragarri



ELHUYAR
fundazioa

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

2010. urtea oso beroa izan da munduan

EUROPAN UDAZKENAREN AMAIERA ohi baino hotzagoa izaten ari bada ere, Meteorologiaren Munduko Erakundearen (OMM) arabera, aurtengo 1850. urtetik izandako hiru urterik beroenen artean izango da.

Abenduaren 2an argitara emandako txostenean aurtengo urtarrila eta urria bitartean munduko batez besteko tenperatura 1961-1990 epeko batez bestekoarekin alderatuta $0,55^{\circ}\text{C}$ handiagoa izan dela adierazten da; urtea ixteko datu batzuk falta badira ere, aurtengoak txiki utzi ditu 1998 edo 2005 urteetako tenperaturak.

2001-2010 epean batez besteko tenperatura 1961-1990 epean baino $0,46^{\circ}\text{C}$ handiagoa izan da eta 2000-2009 hamarkadako baino $0,03^{\circ}\text{C}$ handiagoa. OMMaren arabera, hau da historian ezagutzen den hamarkada batetik besterako hazkunderik handiena.

Bestalde, esan bezala, Europan azken hogeitaz urteotan izandako urterik hotzena izan bada 2010ekoa, Kanan, Groenlandian, Afrikan eta Asian inoizko tenperaturarik gariak neurtu dira.



SASHAW-CC BY SA

Muturreko tenperaturak jasan ditzakeen materiala

SCIENCE ALDIZKARIAN argitara emandako artikulu baten arabera, -196°C eta 1000°C artean bere ezaugarriak eusten dien material biskoelastikoa topatu du ikerketa talde japoniar batek.

CNT izena duen material berri honek eztiaren itxurako likidoaren portaera du, baina hasierako itxura berreskuratzen du eragiten dion indarra desagertzen denean. Gainera, erabilera-degastearekiko ere erresistentzia ona du.

Orain arte material mota horiek ez ziren muturreko tenperaturak jasateko gai izaten, baina Ming Xu ikerlariaren arabera egituraren karbonozko nano-tutuek duten kokapenean datza propietateen aldaketa. Erabilpenak oso ugariak izan daitezke.

Landare batzuek katapultatu egiten dituzte haziak

Gehienetan landareak izaki estatikotzat hartzen ditugu. Batzuen kasuan hori egia baldin bada ere, beste batzuek oso mugimendu azkarrak egiten dituzte, apenas bost milisekundoko irautean dutenak, eta gure begiek ez dituzte ikusi ere egiten.

<http://ttiki.com/20858> (Gaztelaniaz)

Elektrizitatea sortzen duten leihoak

AEBetako Brookhaven eta Los Alamos-eko Laborategi Nazionalak ikerlariak argia hartu eta elektrizitate bilaka dezakeen zuntz gardena garatu dute. Zuntz hori gure etxeko leihoetan jar daiteke eta behar dugun elektrizitatearen zati bat sor dezakegu hortik.

<http://ttiki.com/20860> (Gaztelaniaz)

Gorputzez osatutako Internet sareak?

Uhin artean bizi garela esateak ez gaitu jada harritzen. Gehiago kezkatu gaitzake gu geu bihurtzeak Interneteko sare baten euskarri, gure gorputzetan sentsoreak kokatuz. Bel-fasteko Queen's Unibersitatean horretan ari dira... Ez da zientzia-fikzioa!

<http://ttiki.com/20861> (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Zuhaitz lizarretan

“LIZARRA GURE HILERRIETARA”, diot azkenekoetan. Sendotasunaren eta indarraren ikur da, bai eta hilez-kortasunarena ere, Eskandinavia aldean, adibidez. Ez du botanikarien izena alferrik jarria: *Fraxinus excelsior*. *Fraxinus* latinezko lizarra da, baina *excelsior* hitzak handiena luzeena altuena garaiena dela dio. Hortik sakratuena izatera ez dago tarterik. Lizarra gure kulturaren zutabeetako bat dela esaten ez naiz nekatuko. Sekula. Halakoren batean jabetuko ote gara...

Lizarra ez da lizarra, *Fraxinus excelsior*, bakarrik izan. Lizarra zuhaitza izan da. Zuhaitz guztiak izendatzeko hitza da lizarra. Lurrak eta zeruak lotzen zituzten zuhaitz haien izena da lizarra. Izarretarako bidea. Izarretarako gure bidea da lizarra. Sakratua, lizarra izarra da. Neolitikoa basoak eraitsi eta sail izugarriak nekazaritzarako soro eta larre bihurtzen zirenean, zerurako lotura hau behar eta berrezartze-ko altxa omen ziren menhirrak, lizar metafisikoak.

Nire ustez, lizarra izena zuhaitz basari, originalari, naturalari deitu izan zaio, kulturak, hau da, gizakiak ukitu gabekoari. Pago-lizarra nonahi esaten zaio oraindik ere pago-moztu gabekoari.

Garai batean erresal edo errexal deitzen omen zitzaion edozein zuhaitzi. Itxuraz, bi hitzok lezar hitzera eta hau lizarreara daraman bidea Alfontso Iri-goienek argitu zuen.

Errexal hitzaren tankera modutsuan erabiltzen zen haritz hitza. Orokorrean edozein zuhaitz deitu izan



TELLE-CC BY SA

Gernikako arbola.

da haritz edo haretx. Sakratutasunaren uztarrian lizarren laguna denak argitzen du hau, hurrizak. Hur + haritz=hurriz. Hur errexela edo hur haritza, sagar errexela edo sagar haritza bezala. Sagar haritza ez dut inoiz entzun, haritza sagarra bai, ordea.

Haritzaren abaroen bildu izan gara euskaldunak, zein haritz baina? *Quercus robur* haritza edo edozein zuhaitz sakratu? Gernikako haritza, haritza edo zumarra ote? Lizarra bai!



Itsasoa soro

Emankorra da itsasoa, baina traktorea sartu eta landu behar zenik ez nuen asko uste! Traktorea ur gazitan leporaino sartu eta atzeko are zabala hondoratu. Zertarako, ordea? Belarretan ari da, itsas-belarretan, gorbeletan. Gorbela edo algak honela jaso eta ateratzen dituzte Asturiasen. Itsas biziko egunetan izaten omen dute uzta oparoena.

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Eta wolframioa gerran sartu zen

MADRIL, 1943KO MARTXOA. Alemaniako enbaxadore Hans Adolf von Moltke Francoren Industria eta Merkataritza ministro Demetrio Carcellerrek in bildu zen eta zera esan zion: “Guretzat wolframioa gizakiarentzat odola bezain garrantzitsua da”.

Wolframioa edo tungstenoa metal estrategikoa zen, fusio puntu altuena duen elementua baita. Bigarren Mundu Gerran blindajerako eta jaurtigaiak gogortzeko erabiltzen zuten. Txina zen munduko ekoizle nagusia, baina 1941ean Alemaniak SESB inbaditu zuenetik Asiatik Europarako garraioa etenda zegoen, eta Europa bertako ustiapenetara jo behar izan zuten alemaniarrek. Europako wolframioaren %95 Iberiar penintsulan erauzten zenez, nazien arma industriarentzat nahitaezko bihurtu zen gobernu frankistarekin hornikuntza adostea. Eta orduan Espainiaren eta AEBen arteko “wolframioaren gatazka” piztu zen, Joan Maria Thomas historialariak *La batalla del wolframio. Estados Unidos y España de Pearl Harbor a la Guerra Fría* (Cátedra, 2010) lanean jaso duenez.

AEBetako Gobernuak Espainiari petrolioaren salmentaren gaineko enbargoa ezartzea erabaki zuen, eta bi herrialdeen arteko tentsioa areagotu egin zen. AEBek hainbat baldintza ezarri zuten enbargoa altxatzeko: Espainiako uretan atzemandako itsasontzi estatubatuarrek askatzea, Hitlerren alde borrokatutako soldaduak zigortzea... Baina baldintza nagusia Alemaniarako wolframio esportazioak etetea zen.

Roosevelt presidenteak hauxe esan zuen: “Egun-go Espainiako erregimena higuinargia da estatubatuarren demokraziari eta gobernu egokiari buruzko ideientzat”. Carlton Hayes historialariak,



Alemaniar Panther tankea Bigarren Mundu Gerran. Naziek wolframioa behar zuten tankeen, ontzien nahiz hegazkinen blindajea hobetzeko eta jaurtigaiak gogortzeko. Horrek, azkenean, Espainia frankistaren eta AEBen arteko harremanak baldintzatu zituen.

garai bertsuan, zera esan zuen memorando batean: “Estatubatuar gehienek Espainia errepublika demokratiko bihurtzea nahi dute”.

Baina gatazkaren oinarriak ekonomikoak ziren, ez ideologikoak. Eta, hala, baldintza ekonomikoak konpondu ahala, estatubatuarren iritzia ere aldatu zen. Hayesek berak geroxeago esan zuenez, “Espainia funtsean herrialde demokratikoa dela onartzen dut, demokraziak askotariko adierazpideak izan baititzake”. AEBek Francoren diktaduraren amaiera ez bultzatzea erabaki zuten, besteak beste, 1783an, Bergaran, Elhuyar anaien isolatutako elementu kimikoari esker. Edo haren erruz.

Arrastoak

HDa Berpizkundera iritsi da

FLORENTZIAKO Ufizzi Galeriako sei margolan erabateko zehaztasunez, milimetro chunenekoetan ere, azter daitezke www.haltadefinizione.com webgunean. Italiako Kultura Ondare Ministerioak museo horretako lan guztiak digitalizatzeko asmoa du, baina

oraingoz dozena erdi besterik ez dituzte sarean, besteak beste, Botticelliren *Venusen eta Udaberriaren jaiotza* (eskui-nean), Leonardo Da Vinciren *Deikundea* eta Caravaggioren *Bako*. 2011ko urtarilaren 29ra bitartean egongo da obra horiek doan ikusteko aukera.



SANDRO BOTTICELLI

Mendebaldeko Sahara

Marokok “terrorismoa” du nahiago erreferenduma baino

Azaroaren 8an, Marokoko soldaduek indarrez desegin zuten Agdaim Izik kanpalekua. Ehunka saharar Aaiun hiriko kaleetara irten ziren protestatzera. Ordutik hilabetera, abenduaren 6an, Salem Hach Embarek Irizar sendiarekin solastatu gara.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco



Fronte Polisariori gerran sartzeko deia egiten diote saharar askok. Gehienek dena den, erreferenduma egitea eskatzen dute.

ORMAIZTEGIN GAUDE. Gurutze Irizar, Garazi eta Beñat Salem Hach Embarek-en etxean. Mendebaldeko Sahararen egoera ezagutu nahi dugu. Aita –Mohamed Salem Hach Embarek– Arabiar Errepublikako Demokratiko Sahararreko diplomatikoa izan zen. Ama, Gurutze edota Fatimetu da. Egongelan egokitu gara bost lagunak. Saharako tea atontzen hasi da Beñat.

Saharar herria eta Marokoko

armadak azaroan suntsitu zuen Agdaim Izik kanpalekua ditugu mintzagai. Iraganera jo dugu abiatzeko: “Sahararren genozidioa 1966an hasi zen. Marokoar ejertzitoak napalmez bonbardatu zuen saharar populazioa. 1975ean, berriz, sahararrak kanpalekuetara ihes egingera behartu zituzten. Tinduf-ekoa da kanpaleku horietako bat. Marokoar agintariak egiten zituzten astakeriak ez ziren ezagutarazi mun-

duan. Marokoko kontrolpeko lurraldeetan ez zen inor sartzen, ezta ateratzen ere. Egun, teknologia berriak medio, marokoarrei euren jarrera ezkututzea zailago egiten zaie”, diosku Gurutzek.

Garazi da mintzo segidan: “Marokok garatu duen estrategia politikoa ezagutzea oso beharrezkoa da, politikoa zein soziala. Marokoko Estatuak saharar gizartearen identitatea desagertarazi



nahi du. Sahararren hezkuntza trabatzen du, ez du lana sortzen uzten. Gizartea alienatzen saiatzen da modu ankerrean. Eskubide politikoak ukatuz batera, eguneroko bizitzan eskubide sozial guztiak ukatzen dizkie sahararrei”.

Gurutzek Mendebaldeko Sahararen lurraldea marraztu digu orri zurian –ikus! mapa–: Maroko iparrean. Mauritania hego-mendebaldean. Itsasoa ekialdean eta Aljeria ipar-mendebaldean ipini ditu. Mendebaldeko Sahara euren artean dago, baita lurralde askea ere. Fronte Polisarioak egoitza dauka bertan, Tifariti hirian: “Ni gerra hasi zen garaian kanpalekuetan nengoen, 1975ean. Marokok eta Mauritaniak Mendebaldeko Sahara inbaditu zuten, biek ala biek, iparretik eta hegotik. Saharar herria kolonizatu zuten. Herriak ez zeukan armarik, jendeak ez zuen soldadutza egiten, ez zuen defendatzeko asmorik, ez baliabiderik. Herriak basamortu aldera alde egin zuen. Urte batera gerra hasi zen. Mauritaniak atzera egin zuen gerrari ezin eutsiz, herrialde pobrea baitzen”.

Marokoarrek lurraldea menpe hartu zuten: “Mendebaldeko Sahara lurralde aberatsa da. Basamortu balitz, Marokok ez luke menpera-

tzeko daukan enpeinua jarriko, ezta Frantziak ere; besteak beste. Petrolio eta gasa dago, ustiatu gabe baina. Fosfatoetan eta arrantzan ere aberatsa da”.

Tinduf kanpalekua

Tinduf kanpalekua Aljeriako lurraldean dago. Saharar kanpalekuak oso garrantzitsuak dira. Ume sahararrak handik etortzen dira udaldian Europara. Elikagaiak eta laguntza hara bidaltzen zaizkie: “Gu han bizi izan ginen. Aljeriak saharar populazio zibila babestu du. Sahararrek gerra garaian hara joateko aukera izan ez balute, desagertuta egongo ziren. Bertan bizi diren saharar gehienek nazioartera ateratzeko

“Kanpalekuetan agiri sahararra daukagu. Gure identitatea sahararra da”

GARAZI ETA BEÑAT

nortasun aljeriarra darabilte Beñatek eta biok espainiarra darabilgun bezala. Baina, kanpalekuetan nortasun-agiri sahararra daukagu. Gure identitatea sahararra da”.

Mendebaldeko Sahara ez da estatu-nazio bezala onartua, jakina.

Alabaina, laurogei herrialdek onartua da herri bezala. Hassania mintzo dira gure hiru solaskideak, arabiar dialektoa. Gauza ofizialez, hedabideetan, arabiar klasikoa erabiltzen da. Mendebaldeko Saharako eskoletan –Marokoko kontrolpeko lurraldean– frantsesa da bigarren hizkuntza, marokoarrek inposatua. Kanpalekuetan zaharrak hassaniaz eta gaztelaniaz mintzo dira, espainiar kolonialismoaren ondorioz.

Agdaim Izik kanpalekua

Agdaim Izik kanpalekuak ez zeukan jite politikorik, soziala zen. Jendeak etxebizitza eta lana aldarrikatu izan ditu, soldata bat bizitza aurrera ateratzeko. Ez zegoen ekintzailerik, politikan inplikatuak alegia. Baina 20.000 bizilagun izatera heldu ondoren egoera larritu zen: “Orduan, ‘zergatik gara zapaldu-rik?’ galderari erantzun bakarra aurkitzen diote bertakoek: sahararrak garelako”. Sahararrak kokoteraino daude. Beti esan zaie legea eta arrazoia beren alde daudela, baina Marokok ez ditu NBEko ebazpenak betetzen, autodeterminazioa eskubidea, kasu: “Erreferenduma sinatu bai, baina ez du utzi berau gauzatzen, oztopatu du. 35 urte pasa dira eta sahararrak baketsuak izan dira. 1990ean sinatu zen bake plana, su-etenen truk. Harrezkero ez da tirorik ez lehergailurik izan. Saharar herria zain dago. NBEk, nazioarteko komunitateak edo beste inork zerbait egiten duen zain. Baina inork ez duela ezer egiten konturatu dira, tontoen moduan tratatu dituztela”, diote ama-alabek.

Bien bitartean jendea atxilotzen eta torturatzen dute. Giza eskubideak erabat txikituak daude. Agdaim Izik-en sahararrek marokoarrei beldurra galdu diete eta oldartu zaizkie. Beste biderik ez dutela ikusi dute: “Hildakoez gainera, desagertuak daude. Baina, batez ere marokoarren bertsioa ezagutu da. Hamar izan omen dira marokoar hilak, militarrek, ez poliziak, kanpalekuan soldaduek sartu baitira. Sahararez, ezer ez. Batzuek sinesen dute bertsioa. Espainiako Gobernuak esaterako. Amnistia Internazionalak esan duena esanda ere, frogak –bideoak eta abar– era-



Garazi Salem Hach Embarek

“Euskaldun eta saharar izaerek bi herrialde aberats ezagutzeko eta disfrutatzeko aukera eman didate. Batzuetan alde batekoak nahiz bestekoak kritikatzan ditut, baina autokritika bezala; biek daukate elkarren antza eta zer eman elkarri. Agdaim izik kanpalekuan gertatua eta gero, euskaldunei lozorrotik esnatzeko eskatuko nieke; zerbait gehiago egin dezakegu. Egoera zaila izan arren, ardura gure esku dago. Badakit ezinezkoa dela munduko gatazka guztiekiko arreta izatea, baina gutxienez, informazioa jarraitu eta zeini bozkatu eta zeini ez jendeari interesatzea gustatuko litzaidake. Gure botoek eskubide batzuk ematen dizkigute edo berauek errebindikatze aukera behintzat”.

kutsi arren, Espainiako Gobernuak Marokoko bertsio hobetsi du”.

Lehenengo te zurrutak dastatu ondoren, Beñat sartu da solasean: “Irakurketa politikoa egitea funtsezkoa da. Zergatik sartu ziren marokoar militarrek kanpalekuan? Egun horretan Frente Polisarioa eta marokiarrak negoziatzera eseri zirelako. Marokok elkarrizketak boikotatu zituen. Negoziazio mahaian galtzeko beldurrez sarraskia eragin zuen kanpalekuan”. Hildako sahararrak chunka izan daiteke, batzuk desagertuak, bestetzuk beldurrez ezkutaturik. Kartzelan dagoen jendea bestalde.

Saharar izateaz harro

“Harro sentitzen gara garenaz eta egiten dugunaz” diosku Garazik. Sahararrak Mendebaldeko Saharan arrotzak dira. Bertan 20-80 proportzioan dira sahararrak eta marokoarrak. Kolonizatua eta inbaditua bizitzeak sahararrak gatazkara bultzatzen ditu: “Eskolan marokoar ereserkia abestera behartzen zaituzte, frankismo garaian bezala hemen. Hizkuntza marokoarra inposatzen saiatzen dira, gurearen antzik ez daukana”. Sahararrek ez dute lanik, baina horregatik ez diote utziko saharar izateari. Saharar izateaz arro daude lurralde okupatueta, lurralde liberatueta eta Aljeriako kanpalekuetan ere bai.

Frente Polisario

Marokok errealtatea mozorrotu du, nazioarteko komunitateari lurralde moderatua dela ulertarazi nahi dio, estatu liberala, modernoa eta baketsua dela. Saharar herriarekin eskuzabala dela, autonomia eskaintzen diolako. Autonomiaren bidez eskuzabalak agertu dira munduan. Ohiko leloa darabilte: “Lehen ez zenuten hori. Ea, hartu. Tontoak al zarete? Zergatik ez duzue onartzen hori? Orain lehen baino hobeto zaudete...” diote marokoarrek.

Hirurak mintzo dira, txandaka: “Marokok arazoa ere nahierara erabili du noski, baina betiere frantziar eta espainiar agintarien laguntzaz. Marokoarrak saguak baino okerrago bizi direla sinetsarazi dute bi estatuetan, eta munduak sinetsi du euren bertsio mozorrotua”. Saharar askok Fronte Polisarioi gerran sartzeko deia egiten diote. Beste irtenbiderik ez diete utzi. Halere, jende gehienak lehenik erreferenduma egitea eskatzen du. 1990eko Bake Itunean idatzia dena gauzatzea, Marokok sinatua: “Bi gauza ziren:

“Espainiak kolonizazio txarra eta deskolonizazio are txarragoa egin zuen, eta ez zaituztegu azken garaipenera arte abandonatuko”

FELIPE GONZALEZ



Gurutze Irizar

“Saharar herrikide izatea nire bizitzaren parte da. Nork bere bizitza aukeratzan du, nik horrela egin nuen. Gauzak datozen bezala hartu behar dira, egoerak ezin dituzu beti aukeratu baina pertsonak bai. Ondoan ditut Garazi eta Beñat seme-alabak. Euskaldunok oso eskuzabalak izaten gara, baina azken urteetan zerbait botatzen dut faltan: elkartasuna ekonomikoa da bakarrik. Ordea, Saharako arazoa politikoa denez, irtenbide politikoa behar du. Elkartasun ekonomikoa motz samarra geratu da. Edo niri horrela iruditzen zait. Saharar herriak bizi duen egoera aldatu nahi badugu, egoera konpontzeko bultzada politikoa behar-beharrezkoa da”.

su-etena eta –erreferenduma gauzatzeko– izenen zerrenda osatzea. Su-etena indarrean ezarri zenean, zerrendak egin ziren. Artean, Marokoko saiatu zen Mendebaldeko Saharako sahararren boto eskubidea deusezten. Polisarioak ez zuen onartu. Marokok badaki, bertako sahararrek nahiago dutela Sahara aske batean bizitzea, euren menpe bizi baino, badaki erreferenduma alde aurretik galdua daukala. Noski, Marokok itunak sinatzen ditu, baina ez ditu betetzen”.

Hassan II. erregearen ondorengo Mohamed XI. da, haren semea. Marokoko erregimenak okerrera



Beñat Salem Hach Embarek

“Euskal Herria eta Sahararen artean berdintasunak daude: independentzia nahiak adibidez. Baina bi herrik eraman duten borroka ezberdina da. Saharar herria batua dago, Euskal Herria ez. Euskal Herrian bide estrategikoa aldatzea beharrezkoa da. Ezker abertzaleak pauso garrantzizkoak eman ditu. Gazteok hemengo prozesu politikoa egingarria ikusten dugu, baina Espainiako legedien barruan ez dakit zer lortu dezakegun. Saharan berriz Estatu marokoarrarekin ez dagoela ezer egiterik uste dut. Borroka armatua lehertuko ote den beldur naiz. Herri txikiak garela kontziente izan behar dugu, hiltzen den pertsona bakoitza berreskuratzetik ez dagoela, eta borroka armatua sakrifizio gogorra dela”.

SOLOZABAL

*Esakura ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

egin du solaskideen iritziz. Espainiako Estatuaren jokabideaz ari gara orain: “Espainia potentzia kolonizatzailea da, NBEren ebazpenaren arabera Mendebaldeko Sahara –okupatua zein librea– Espainiak administratu behar luke. Hau da, prozesu deskolonizatzailea bukatu gabe dago. Prozesua ez zen behar bezala egin. PSOE eta PP, biak, gaizki aritu dira, baina aukeran, Marokok ez du PP gobernuan nahi, PSOE nahiago du. Auzia 1975etik dator. Garai hartan, militarak ez zeuden kolonia uzteko ados. Alde egin zuten, baina poltsikoak ondo beteta. Espainiako Gobernuak lapurrak bezala utzi zuen lurraldea, gauerdian, Maroko eta Muritaniari bidea libre utziz. Handik urte batzuetara, Felipe Gonzalez presidenteak “*me comprometo ante la historia*” esan zuen, baina kontrakoa egin zuen. PSOEek honela esan zuen: “Espainiak kolonizazio txarra eta deskolonizazio are txarragoa egin zuen, eta ez zaituztegu azken garaipenera arte abandonatuko”.

Gobernuen alternantzia izan da Espainian: PP eta PSOErenak. Baina ez dute arazoa konpontzen lagundu, ez batek ez besteak. Haatik, PSOEek, gobernuan dagoenean, Marokorekin harreman hobeagoak ditu PPK baino”. Frantzia da berriz armak Marokori saltzen dizkiona. Espainia sikarioa da, babeslea Frantzia, jendarmeria: “NBEko kontseiluan Frantziak beto eskubidea dauka. Frantziak NBEk aurkezten dituen ebazpenak pikutara bidaltzen ditu. Frantziarentzat Maroko oso garrantzitsua da, herrialde are eta handiago –Mendebaldeko Sahara menpean– Frantziarentzat hobeto. Frantziak Espainiak ez dituen interesak dauzka. Printzipioz Frantziari baino gehiago Espainiari komeni zaio Sahara herri independentea izatea. Espainiaren ekonomiarentzat egokiagoa litzateke, Frantziako enpresen interesen menpe jardun gabe. Oraingo estatusean baina, marokoarrek frantziarren interesak hobeto babesten dituzte”.

Espainiari Sahara independentea hobekiago joango litzaiokeela esaten bada, zergatik ez du Espainiak Sahara independente baten alde egi-

ten? Galdera ez da samurra. Estatuaren arteko interesak daude horren atzean. Frantziarenak lehenik eta behin. Espainiak daraman jokamoldearekin hainbat hipotesi erabiltzen dute adituek. Euskal gatazkaren konponbideak eragina duela pentsa dezake batek baino gehiagok.

Al Qaeda

Marokok gerra hasi nahi du berriz ere, mundu guztiak “hauek terroristak dira” esan dezan. Al Qaedak esku sartu nahi duela zabaldu da hedabideetan: “Marokoarren artean badabil, sahararren artean ez da sartu Al Qaeda. Marokoko sistema politikoa monarkikoa da, Erdi Arokoa. Herritarrak oso pobreak dira eta gehienak hiri handiko aldirietan bizi dira. Erlijioak eragin handia dauka, Al Qaedako militanteak sortzeko ekai egokiak daude: pobrezia, erlijioa, marjinalizazioa eta estatu feudala. Al Qaedak badu non jardun eta nola aritu, aldiz, sahararrekin ez. Mendebaldeko Sahara ez da erlijio-soa, fundamentalismoa ez da suspertu. Beñat mintzo da: “Behinola kazetariak kanpalekuetara joan ziren eta ‘zuek zergatik ez dituzue meziketak sortzen?’. Lagun batek ‘ospitaleak eta eskolak eraikitzeke garaia da. Nork bere jainkoari bere etxean erreza diezaioala’ erantzun zien.

Beñaten aburuz, lurralde okupatuetako egoerak eta Ipar Irlandan iraganean izan zenak antzeko konnotazioak dauzka: sahararrak irlandarrak dira batetik. Bestetik, marokoarrek unionistak dira. Marokoarrek lanpostuak dauzkate, sahararrekin ez. Horrelako egoeran zilegi da gazteak eskubide sozialen aldeko borrokan altxatzea. Eskubide politikoa modu baketsuez eskatzen hasten dira, baina estatu menperatzaileak zapaltzen ditu. Egoera horrek Ulsterren IRAren sorrera eta gatazka ekarri ditu urte luzetan. Bada, Saharan ere aurre fase horretan egon gaitezke.

Testuingurua hori bada, zein da irtenbidea?: “Gazteak ekintzara pasako balira, gatazkaren parametroak gogortu litezke. Marokok hori nahi du munduaren aurrean ‘horra terroristak’ zilegitasunez esateko”.

argia.com Askapeneko Julen Zulaikaren iritzi artikulua.

MIHILUZE

BERRITUA

Froga berriekin gozatu eta barre egiteko



Telebistako programa
arrakastatsuaren
edizio berria!

- Erantzuna emanda asmatuko al zenuke galderaren erantzuna?
- Eroglifikoak deszifratzeko bezain ero al zaude?
- Sakiko mzkn dzn trbtasna rktsi

Eta beste hainbat froga dibertigarri...

- Zer da zer?
- Tribuaren berbak
- Potokumeak
- Horma

... zure hizkuntza aberasteko.



BBVA eta Amerika

Paradisu zaharrak inperio berriarentzat

Amerika BBVAren “urrezko paradisu” da; hortxe du negozioirik handiena eta, ondorioz, hortxe du langile gehien: 103.721 langiletatik 58.919. Eta hortxe lortu du, 2009an, 4.210 milioiko etekin garbien erdia baino gehiago.

DANIEL UDALAITZ

BBVA



Ezker-eskuin: Angel Cano BBVAko kontseilari ordezkaria; Jose Miguel Isulza Amerikako Estatuaren Erakundeko idazkari nagusia; Francisco Gonzalez BBVAko lehendakaria; eta Ricardo Caballero Massachusetts-eko Teknologia Institutuko Ekonomia Saileko zuzendaria. Txilen bildu ziren BBVAk herrialde hartara egindako bisitan.

EGOITZA SOZIALA BILBON daukan BBVAren urrezko paradisu ez dago ez Euskal Herrian, ez Espainiako Estatuan. Negozio handiena eta, beraz, egitura garatuena Amerikan dauka, nagusiki, Mexikon eta Hego Amerikan. Hor du negozio,

langile eta etekin gehien. BBVAren 2009ko txostena eta aurtengo lehen sei hilekoko emaitzak aztertuta hori ondorioztatzen da. Amerikaren alde egin duen apustua egoitza Texasen duen Guaranty Bank erosi-ta indartu du. Guaranty Bankek 767

sukurtsal dauzka: 412 Texasen, 92 Alabaman, 83 Kalifornian, 77 Arizonan, 45 Floridan, 36 Coloradon eta 22 New Mexicon. Eta, halaber, iragan maiatzean, Credit Uruguay Banco bereganatu zuen, 36 bulego eta 480 langile dituen. Horrenbes-

BBVAko presidentek dagoeneko 80 milioi euroko erretiro pentsioa dauka

Egungo krisialdi ekonomikoa dela eta, 2009an, BBVAko lehendakariak eta administrazio kontseiluak beren ordainsari ekonomikoak izoztea erabaki zuten. Hala ere, Francisco Gonzalez, FG, presidentearen eta Angel Cano aholkulari nagusiaren sariak oso altuak dira oraindik. Hala, FGk 2010ean ia bi milioi euro jasoko ditu soldata finko gisa (2009an bezala) eta beste 3,4 milioi euro bono aldakor baten bidez. Entitatearen txosten ofizialaren arabera, 2009an FGk 1,92 milioi euroko sari finkoa eta 3,80 milioi euroko sari aldakorra jaso zituen. Bestalde, Canok aurten 1,25 milioi euroko soldata finkoa jasoko du eta ia beste bi milioi euro bono aldakor bidez.

FGk dagoeneko erretiroa hartuta beharko luke, baina BBVAren buruan jarraitzeko modua topatu

zuen. 2009an, 65 urte bete zituenean, 80 milioi euroko (79,7) erretiro pentsioa jasotzeko eskubidea berretsi zuen. Erretiroa atzeratu zuenez, funtzio exekutiboak uzten dituztenean soilik jasoko du kopuru hori.

Bestalde, BBVAko administrazio kontseiluko 13 kideek, 2009an, 24 milioi euro (24,157) jaso zituzten guztira, hainbat kontzepturengatik. Kontseilu horretako kide diren bi euskal aholkularien guztizko ordainsariak nabarmenduko ditugu: Gasteizko Merkataritza Ganberako presidente Roman Knorrek 295.476 euro jaso zituen; Deustuko Merkataritza dekanoa Susana Rodríguezek, berriz, 242.964 euro. Horrez gain, 19.503 eta 13.596 akzio jaso zituzten, hurrenez hurren.


tez, Hego Amerikako herrialde horretako bigarren finantza entitatea bihurtu da.

Bitartean, Francisco Gonzalez, FG, BBVAko presidente izendatu zutenetik, BBVAk Bilbon dituen instalazioen lekualdaketa bizkortu egin da.

Langileak eta etekinak

BBVA, orotara, 103.721 pertsonak egiten dute lan. Bada, langile gehienak, 58.919 hain zuzen, Amerikako sukurtsaletan eta bulegoetan daude, AEBn lan egiten duten 12.132 pertsonak barne. Erreferentzia gisa, kontuan hartu Espainiako Estatuan BBVAk 3.055 bulegotan diharduten 27.936 langile dituela.

BBVA taldeak, 2009an, 4.210 milioi euroko mozkin garbiak (zergak ordaindu ondorengo mozkinak) lortu zituen. Horietatik 2.230 milioi Amerikari dagozkio, 1.359 milioi Mexikori eta 871 milioi Hego Amerikako herrialdeei. Hala ere,



urte horretan AEBko negozio eremuan 21 milioi euroko galerak izan zituen. Espainiako Estatuako eta Portugaleko negozio eremuan,

2010eko lehen seihilekoan BBVAk Hego Amerikan lortutako emaitzak nabarmen hobetu dira

aldiz, 2.000 milioi euro inguruko etekin garbiak lortu zituen.

2010eko lehen seihilekoan BBVAk Hego Amerikan lortutako emaitzak nabarmen hobetu dira. Hala, bankuak berak jakinarazitako datu ofizialen arabera, Amerikako zonalde horri dagozkion etekinak 453 milioi eurokoak izan dira urteko lehen sei hilabetetean, 2009ko seihileko bereko etekinekin alderatuta, %12,9 gehiago.

32 herrialdetan 7.466 bulego ditu

BBVAk munduko 32 herrialdetan lan egiten du. Espainiako Estatuaz eta Portugalaz gain, Hego Amerikako ia herrialde guztietan eta AEBtan ditu bulegoak. Asian ere gero eta herrialde gehiagotan lan egiten du. Mundu osoan dituen 103.721 langileak 7.466 bulegotan banatuta daude. 2009ko abenduaren 31n 884.373 akziodun eta 48 milioi bezerotik gora zeuzkan. ■

Babeslea: Gaindegia

EUSKAL HERRIAK: ERRONKA SOZIO-EKONOMIKOAK

13 elkarrizketa berri Euskal Herriaren erronka ekonomiko eta sozialez. Askotariko errealitate baten ikuspegi konprometituak.

LIBURUA SALGAI Gaindegia web gunean www.gaindegia.org



Izarbeibarko euskara

Galdutako euskalkia berreskuratu nahian

Hizkuntza ondarea berreskuratzen ari dira Izarbeibar bailarako biztanleak. Galdutako hizkuntza ikasteko aukera. Horixe da Garesko Udalaren ekimenaren eta Aitor Arana hizkuntzalariaren lanari esker herritarrei eskaini zaiena.

SAIOA LABAKA

Argazkia: Garesko Udala

IZARBEIBAR Nafarroaren erdialdean dago, Iruñeko merindadearen hegoaldean. Hamaika udalerrik osatzen dute: Gares, Legarda, Uterga, Adios, Ukar, Biurrun-Olkotz, Tirapu, Añorbe, Eneritz, Muruzabal eta Obanosek. 6.260 biztanle bizi dira bailaran, eta Gares da udalerririk jendetsuena; 2.841 pertsona bizi dira han. Euskarak ibilbide luzea du Izarbeibarren. Denboraren orratzek erromatarren garairaino garatuzate lehenik. XVI. mendeko elizaren hizkuntza distribuzio mapek, berriz, Izarbeibar bailara euskaldun gisa aurkezten dute. Hizkuntzaren ordezkatzeko prozesua XVIII. eta XIX. mendeetan gertatu zen, ordea, eta bailarako biztanle gehienak euskaldun elebakarrak izatetik, gaztelaniadun elebakarrak izatera igaro ziren. Horren lekuko, 1860ko erroldaren datuek erakusten dutena: Izarbeibarko biztanleriaren %14a zen euskalduna, adin nagusikoak gehienak. Dena den, euskararen bizitasunari begira, Bonapartek 1863. urtean egindako euskalkien mapan Gares eta Izarbeibar osoa euskararen eremuan kokatu zituen.

Duela laurogei bat urte galdu zen Izarbeibarko euskara, hegoaldeko nafarreraren baitako euskalkia. Fermin Irigarai *Larreko* idazle nafarrak 1923an *La voz de Navarra* egunkarian idatzitako artikulua Izarbeibar-ko euskalkiaren amaiera-mugarritzat hartua izan da, azken



Argazkian Izarbeibarren desagertutako euskalkia ikasteko egindako ikastaroan parte hartu zutenak. Goian, eskuinetik hasita, Aitor Arana *Izarbeibarko Euskara. Ikasliburua eta Hiztegiaren* egilea, eta liburuarekin Koldo Kolomo euskara teknikaria.

euskalduna elkarrizketatzeko aukera izan baitzuen bertan. Halere, han-hemenkako dokumentuetan gorderik biziraun du euskalkiak; euskaraz idatzitako elizako sermoi eta doktrinetan, esaterako.

XX. mendeko 70eko hamarkadan itzuli zen euskara iberrera politikoki. Izarbeibarko herritarrek euskararen aldeko hautua egin zuten, eta euskara ikasten hasi

ziren gau-eskoletan eta gerora ikastetxeetan.

Bailarako %15 euskalduna da

Gares da Izarbeibarko herriburua eta bertako Udalak du Euskara Zerbitzua. Koldo Kolomo euskara teknikariak azaldu dizkigu bailarako euskararen egoeraren nondik norakoak. 2001eko erroldaren arabera, euskaldunen eta ia euskaldunen

kopurua %16,2koa zen Garesen. Gaur egun, udalerriko euskaldunak %20 inguru izango direla adierazi digu Kolomok. Izarbeibar bailara osoko euskaldunen kopurua, berriz, %15-16 ingurukoa da, hiztun gehienak haurrak eta gazteak izanik. Gares da bailarako euskaldun kopuru handiena duen udalerrria. Izan ere, Gares zonalde mistoan dago eta gaur egun haurren %60a D eremuan dago matrikulatuta. Bailarako gainontzeko udalerrriak eremu ez euskaldunetan daude, eta ikastetxeetan ez dago D eredurik. Dena den, eskola eremu berean daudenez, Garesko ikastetxean euskaraz ikasi nahi duten haurrei garraioa ordaintzen die Nafarroako Gobernuak.

Helduen euskalduntzeari dagokionez, AEK euskaltegia dago Garesen eta 60 bat ikasle ari dira euskara ikasten. Mañeru eta Uterga herrietan ere talde bana ari da. Mintzakide programa ere duela bi urte jarri zuten abian Garesen, Lizarrako Udalarekin eta Garean euskara elkartarekin batera. hamabost ikasle ari dira orain.

Izarbeibarko jatorrizko euskara ikasten

Izarbeibarko euskararen ezaugarrien inguruko hainbat liburu argitaratu dira Garesko Udalaren ekimenez azken urteetan. *El euskera en Valdizarbe/Izarbeibarko euskara* (1993), eta *Diccionario Castellano-Vasco de Valdizarbe* (2009). Nafarroako Gobernuaren eskutik, berriz, *Izarbeibarko hiztegia* (2002) argitaratu zen eta Hiria argitaletxearen ekimenez, *Hegoaldeko goi-nafarrera. Izarbeibarko aldaera Hiztegia* (2005). Pasa

den urrian Aitor Arana idazle eta hizkuntzalariak Garesen aurkeztu zuen azken liburua: *Izarbeibarko Euskara. Ikasliburua eta Hiztegia*. Ibarreko euskaldunei eta ibarraz kanpoei bertako euskara ikasteko aukera ematen die liburuak. Desagertutako euskalkia ezagutzeko ikas-metodoa da, finean. Hiru zati ditu liburuak: ikasliburua, irakurgai eta hiztegia. Ikasliburuan Izarbeibarko euskaraz idatzirik geratu diren testuetako eduki gramatikala aztertzen da. Euskarazko testuak Ukar, Uterga eta Gareskoak dira,

“XVIII. eta XIX. mendeetan bailarako biztanle gehienak euskaldun elebakarrak izatetik, gaztelaniadun elebakarrak izatera igaro ziren”

AITOR ARANA

testu erlijiosoak gehienak. *Martin eta basajaunak* euskal mitologiako ipuin ezaguna ibarreko euskaraz irakurtzeko aukera ere eskaintzen da liburuan. Azkenik, bailarako jatorrizko euskararen hiztegi eguneratua dakar lanak. Euskalkien inguruko informazioa aurkitzea zailak izaten diren aldizkari espezializatuetatik atera, eta ale bakarrean herritarren eskuean paratu nahi izan du egileak.

Aitor Aranak ikasliburuan oinarritutako hiru eguneko ikastaroa eman zuen joan den hilabetean Garesen. Hamasei lagunek hartu zuten parte ikastaroan; euskaltegiatik pasatako ikasleak gehienak, eta

D eremuan ikasitako bi kide ere han izan ziren. Ikasle gehienak ibarrekoak izan ziren, Lizarrako eta Iruñeko bat edo beste tartean zirela. Koldo Kolomok jakinarazi digunez, ikastaroaren arrakasta ikusirik, apirilean beste bat antolatuko dute, luzeagoa. “Ekimena interesgarria izan da, garrantzi handiko ekarpena baita duela ehun urte galdutako hizkuntzaren berri izatea. Gure zonaldeko euskara berreskuratu ahal izan dugu, baina Garestik hegoalderago beste euskalkiren bat berreskuratzea eta liburu bat argitaratzea oso zaila dela iruditzen zait”.

Garesko Udalak herritarrei beren hizkuntz ondarea berreskuratzen laguntzeko egindako lana eredugarria izan dela aipatu izan du Aranak. Garesko ekimenen emaitzak ikusita, Gesalatz ibarrean ere laster atera nahi luketela hango gaztelania-euskara hiztegia aipatu digu Aranak: “*Euskara batua-Gesalatzko euskalkia* duela urte batzuk argitaratu genuen Hiria argitaletxean. Denborarekin ikasliburua ere egin beharko da”. Inguruko bailara eta herrietan Garesko Udalaren antzeko ekimenak egiteko aukera asko galdu ote diren galdetu diogu Aitor Aranari: “Nafarroako Gobernuako agintariek, Garesen bezala, hizkuntz ardur handiagoa izan balute horrelako lan asko eginda egongo lirakeke jadanik. Ez dut esan nahi, noski, ezer egiten ez dutenik: tanka-tanka argitaratzen dituzte lanak, baina beti dira euskaltzaleek edo filologoek beren kabuz prestatuak. Ekimen biziagoa izan behar lukete, eta eragileak izan, haiek baitute benetan horretarako ahalmena”. ■

tradEBi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradEBi.com

Seaskari 2,8 milioi euro

PAUEKO KONTSEILU NAGUSIAK iragarri du 2,8 milioi euroko dirulaguntza emango diola Seaskari eraikin berriak egiteko. Duela gutxi, ARGIAN (2.253. zbk.) Seaskari buruz egin dugun artikuluan, Paxkal Indo Seaskako lehendakariak garbi azaldu zuen aurreikusten zuten itoaldi ekonomikoa. Seaska etengabe ari da eraikinak altxatzen, urterro haur kopuruak gora egiten baitu. Ikastolak jasotzeko Eusko Jaurlaritzako eta Herri Urratseko dirua zuten urtero.

Jaurlaritzak urte baterako pentsatua zuena hiru urterako banatu du, eta hori gutxi balitz, PPk eta PSE-EEk

adierazi dute EAEz kanpoko eskola pribatuei ez laguntzeko borondatea.



Beraz, egoera ekonomikoak estu hartua zuen Seaska, eta Indok azaldu zigunez, kanpaina erraldoia egi-

teko asmotan ere baziren. Alabaina, Pauetik 2,8 milioi euro jasoko ditu Seaskak eraikinak egiteko. Xalbador kolegioa eraberritzeko 1,3 milioi euro jasoko ditu eta 1,5 milioi euro Seaskaren Kanboko egoitza egiteko. Seaskak datozen bost urteotan 15-18 milioi euro beharko ditu eraikin berriak altxatzeko.

Badirudi Seaskak egindako borroka legala emaitzak ematen hasia dela. Izan ere, Frantziako eskola pribatuaren legearen arabera, herriko etxeek, Kontseilu Orokorrak eta Akitaniak ezin ditu eskola pribatuak diruz lagundu eraikin berriak egiteko.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

Paula Kasaresek Eusko

Ikaskuntzaren Atejoka agerkarian

esanak: “Erdal elebakarraren eta euskaldunaren arteko alderik nabarmena euskaldunak erdal mundua (hizkuntza barne) gutxi-asko ezagutzen duen bitartean, alderantziz aldiz, ez, erdaldun hutsak euskaraz ez ezik euskal munduaz ere ez ohi daki ja ere (kasurik onenean deus gutxi daki). Eta gainera, botere publikoetatik eta hedabideetatik horixe da zabaldu eta indartzen dena: euskara euskal kulturaren gainekoa euskaldunen gauza da, haiei baino ez die axola”.

Andoni Olariagak Garan esanak:

“Esan daiteke, identitate indibidual, kolektibo eta giza espeziearen oinarria norberaren hizkuntza(k) d(ir)ela. Izan ere, pentsatu (sentitu, hitz egin, eta abar) gogaera unibertsalean egiten badugu, aberastasun eskasa geratzen zaie hizkuntza partikularrei. Berdin al da, ba, ‘maite zaitut’ eta ‘te quiero’? Teoria unibertsalista gramatikalen atzean monolinguisismoaren gorazarrea usain daiteke. Horren kontra, esan behar da hizkuntza bakoitzak bere modura ahalbidetzen duela giza askatasuna, hizkuntza bakoitzak bere askatasun modua”.

TALAIAN**Aurrekontu antisozialak eta insolidarioak**

Euskal gehiengo sindikala (ELA, LAB, STEE, EHNE, HIRU) kalera atera da joan den astean Gasteizen, eta gauza bera egingo du aste honetan Iruñean, gobernuen eta foru aldundien aurrekontuak salatzen, azken urteetako antisozialenak eta insolidarioenak direlako. CC00 eta UGT, beren aldetik, murrizketa sozialen kontra manifestatu ziren.

López eta Sanz-en gobernuak patroirak –Merkatuak– eta Estatu berak –Espainiakoak– lotzen ditu. Bakoitzak bere politika inposatzen die. Horrela, euskal gehiengo sindikalaren arabera, gobernuen 2011ko aurrekontu-sailetan 2010ean baino askoz gutxiago bideratuko da osasunera, hezkuntzara eta etxebizitza politikara, zehazki 182, 168 eta 18 milioi euro, hurrenez hurren. Murrizketa horiez gain, babes sozialaren egungo sistemari eragingo dien beste batzuk ere mahai gainean daude jadanik. Aurrekontu horiekin langabezia gehiago egongo da 2011n, zerbitzu publikoaren kalitatea eskastuko da eta beharrezko babesik gabe utziko dira krisia jasaten ari diren pertsonak. Bitartean, kapitala babesten da. EAEko enpresariak, opor fiskalengatik, ez dituzte itzuli 750 milioi euro, Lópezen gobernuak politika sozialerako bideratzen duen kopuruaren bikoitza. Iruzur fiskalak eta paradisu fiskalek euskaldun askoren babesleku izaten jarraitzen dute.

Gure nazio subiranotasunaren errespetutik hasita, beste eredu ekonomiko berria behar da. Euskal Herrian erabaki behar dira aurrekontuak, eta ez Madriletik edo Paristik inposatzen diren joko arau eta mugen arabera. Eredu ekonomiko berria behar dugu, herritarrek, gehiengo sozialaren zerbitzura egongo diren aurrekontuen eta politika fiskalaren eraketan parte hartu dezaten. Enpresari eta bankari handiek gobernuak aholkatzen segitzen duten bitartean, hauen politikaren emaitzak antisozialak eta insolidarioak izaten jarraituko dute.

Juan Mari Arregi

Agiriaren ondorengoaz dagoeneko

ETA-REN KOMUNIKATUA une bate-tik bestera ezagutu dezakegunean, idazten dena zahartua geratzearen arriskua bizi dugu egunotan. Edo ez, inoiz ez bezala, bai baitirudi agiri horrek zer esango duen ezagun dugula dagoeneko: Gernikako Akordioa eta Bruselako Adierazpenak eskatu bezala, su-eten iraunkor eta egiaztagarriaren jakinarazpena; eta horrek esan nahi du, besteak beste, *zerga iraultzailea*-ren eskaera eta bestelako mehatxuen amaiera. Fun-tsean, ETak ere bere egiten dituela Mitchel printzipioak.

Mamian, hori da iragarri zaigu-na. Orain ea betetzen den eta agi-ran zein hizkuntza molde erabiltzen den ikusi behar. Rufi Etxeberriak joan den astean Radio Euskadin emandako elkarrizketa izan da agertuko denaren ziurtagiria eta, berriz ere, medioak mezuan duen eragina agerian geratu da.

Iragarpena, halaber, eta hau ere inoiz ez bezala, ondorena prestatzen ari da jada. Orain arte egindako bidearen egiaztagiri gisa aurkeztuko du ezker abertzaleak eta aldebaka-rreko bidea bake prozesu anitza bihur dadila aldarrikatu. Beste batzuek, nagusiki PSOEk, aldez aurretik prestatu dute erantzuna: ondo da, baina ez da nahikoa, ETak

behin-betiko utzi behar ditu armak edota ezker abertzaleak ETArekin apurtu behar du. Eta gero gerokoak.

Eta gerokoetan, hauteskundeetako da zalantza nagusietakoa, ea agiri honek eta ezker abertzaleak aurkeztuko duen alderdi berriaren estatutuen izaerak maiatzera-ateak irekitzea lortzen duten.

Zalantza gutxiago dago estatuaren errepresioaren eremuan: zoritxarrez, ezker abertzalearen aurkako etenga-beko sarekadek gehiago ere iragar-tzen dituzte. Batetik, Estatuak ezker abertzalea estutzeko baliatzen ditu eta, bestetik, PPrengandik babeste-ko. Baina, ezker abertzaleak eta ETak mugimenduak egin ahala, pilota ospetsua PSOEn teilatura doa apur-ka. Erabakien ordua dute. Keinuak aspalditik gertatzen ari dira, baina ez iritzi publikoak argi eta garbi arre edo so ari den irudikatzeko moduan. Eta maiatzeko hauteskundeetarako, hori argi ikusi behar du euskal gizarteak. Ezker abertzaleak urratsak eman ahala, eta PSOE errepresioaren eske-man enrokatzen bada, bere botoe-maile mota batek bizkar eman die-zaioke, lehenago Zapaterori 2006ko ahalegina eskertu zion moduan.

Alde horretatik ezker abertzalea ez dago hain presatua. Atxilotetek-eta humanoki min ematen badute

ere, ETaren biolentzia bako eszena-tokian, politikoki errentagarri ere izan daitezke, eta gerta liteke Madril-go errepresioa ezker abertzalearen-tzat sostengu bilakatzea hemen.

Premia beste eremu batzuetan du ezker abertzaleak, esate batera-ko presoenean, eremu horretan ere urratsak eman beharko baititu. Presoen Kolektiboak urratsak eman beharko dituela alegia. Eta seguruenik Espainiako Gobernuaren pausoen zain egon gabe, era-baki aldebakarrekoek Madrilgo Gobernuari presoak xantaiatzeko aukera gutxiago ematen diote eta.

Noticias Taldeko elkarrizketan ikusi dugun legez, Langraizko espe-txeko preso talde bat jadanik egiten ari da bide bat eta, seguruenik, Kolek-tiboak berandu baino lehen hartu beharrekoa ez da oso desberdina izango. Desberdina testuingurua izan-go da, gradu aldaketa edo baimen bat eskatzea orduan ez delako gaizki iku-sia izango eta presoen parte hartzea prozesu honetan bideratuago egongo delako. Gaur gaurkoz, bake prozesuak daraman bidearekin, nekez irudika liteke amnistia orokorraren tankera-korik. Bai irudika liteke, aldiz, irteera graduala, baldintza batzuk onartu ondoren. Irudikatu ezina zera da, barruan geratuko direla.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Jose Ignazib Ansorena

Amenzaleak

ETarenak egin duela, bere kide eta zaletu gutxi batzuentzat ez beste guztientzat, garbi dago. Apur bat gutxiago edo gehiago iraungo du, agian banaketarik gertatuko da bere baitan, baina honek ez du dudarik: amaitu da ETaren garaia. Zorionez.

Ezker ofizialistaren buruzagiek ere badakite, irakasgai hau gainditzeko hainbat kurtso errepikatu behar izan dituzten arren. Horregatik orain, ia bat-batean, lotsa ere ematen duen modu otzanean, Estatuak jartzen dituen proba guztiari *amen* esateko prest azaltzen dira. Urteetan hori baino askoz gutxiago egin duten abertzaleek (zer esanik ez abertzale ez zirenek) beren alde-tik tankera guztietako irain eta mehatxuak jaso behar izan ondoren.

Ez omen da balantzea egiteko garaia. Behar diren datu asko oraindik ez ditugu eskuragarri. Baina artaburu galantak izan direla konturatzeko ez da gehiago behar. Porrot izugarria garaipen gisan azaldu nahi digute eta, bestela saltzeko munduko propaganda guztia erabilia ere, argi eta garbi gertatzen da ezker abertzale ofizialistaren buruzagitza politikoa oso txarra izan dela azken urte luzeetan. Hona ailegatzeko ez zen hainbeste denbora, kalapita, berbaldi harro eta sufrimendu beharrik. Areago, hainbeste kalamitaterik gabe beste norabait hobera irits gintezkeen abertzaleok.

* * *

Francoren gerratik galtzaile atera ziren euskal abertzaleak, ez ordea abertzaletasuna. Oraingo honetan, mairaino kaltetuta atera da. ETaren eta ezker abertzale ofizialistaren jokabidea denontzat izan baita kaltegarri. Kostako zaigu berriro burua altxatzea. Emaizta hauxe da gutxienez: abertzaleen arteko erreten handiak, nazioartean inoiz baino aurkako girorik beroena eta gazteen artean oso interes gutxi euskal politikarekiko. Ez da soilki ezker abertzalearen erantzukizuna, bai nagusiki ordea. Besteak beste, jende gehiena nazkatu eta gogaitu duelako. Etorkizunari begira, itxurazko damurik ez, baina izan eta duten jokabidearen azterketa zorrotzagoa eskatu behar zaie, kaltegarri izaten jarraitu ez dezan.



DANI BLANCO

ETaren ezaugarri nagusietako bat izan da, inork etsai bihurtu nahi ez bazuen, hark aldarrikatutako guztiari *amen* esan beharra. Ez da harritzekoa barruan hainbeste apaizgai ibili dela kontuan hartuta

ETaren ezaugarri nagusietako bat izan da, inork etsai bihurtu nahi ez bazuen, hark aldarrikatutako guztiari *amen* esan beharra. Ez da harritzekoa barruan hainbeste apaizgai ibili dela kontuan hartuta. Borroka politikorako teologia zaharraren egokitzapen merkea zuen diskurtso. Dudarako zirrikiturik ez, erabateko adostasunetik kanpo gertatzen zen guztia heresiatzat eman eta amildegitik behera botatzeko modukoa zen.


Ezker abertzale ofizialistak ere kultura hori bera hobetsi izan du. Tirorik gabe, baina bestelako modu askotan, *amenzale* izan ez direnek nabaritu dute haien geziak nolakoak ziren: kale eta tabernetan, *beraien kaleetan* ibiltzean bereziki, telefono deietan, bazterketa modu askotan...

Beldurrak nago tiroen desegokitasuna onartuta ere, besteaz jabetzea gehiago kostako ote zaien. Ezagutzen ditudan alorretan behintzat garbiro ikusten da garai berrietarako prestatzen ari dela ezker abertzale ofizialista, boterea biltze aldera, baina burua lehengo lepotik. Komisario politiko gehiegi bazterretan. Eta jokabideak ere halamoduzkoak.

Ezkerreko abertzale denak Euskal Herria sendo, solidario eta independentearen alde lan egin behar du eta horretarako bertako pertsonak ere horrelakoxeak izatea jarri beharko luke helburu. Independentzia ez baita bakarrik politiko-administratiboa.

Independente izatea larrutik ordaintzen dela diote batzuek. Nik uste dut dependiente izatea askoz garestiago ordaintzen dela. Baina botereak *amenzaleak* behar ditu beti. Amen. ■

ASTE HONETAKO zozketa



Iriarte Jauregia

Asteburu pasa
bi laguntzat

Eliz-Bailara 8
Bidegoian GIPUZKOA

www.iriartejauregia.com

1



Guikuri Nekazalturismoa

Asteburu pasa
bi laguntzat

Guikuri, 1
Murua ARABA

www.guikuri.com

2



Andra Mari Jatetxea

2 laguntzat afaria

Elexalde Auzoa, 22
Galdakao BIZKAIA

www.andra-mari.com

3



Sausta jatetxea

Afaria 2 laguntzat

Belate pasalekua 7-8, behea
Tolosa, GIPUZKOA

Tel.: 943 655 453

4



Egutegia 2011 euskarriarekin

2 ale opari

argia

www.argia.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2256. Argia)

ATXASPI

- Arrate Larruzea Ormaza (Bermeo)

UROLA

- Jon Mikel Barandiaran Arratibel (Errenteria)

GAUAREN SAKONEAN

- Arrate-Aginagako Zaharren Egoitza (Usurbil)
- Juani Zabaleta Lazkano (Urretxu)
- Koldo Elorz Leoz (Iruñea)

AQUARIUM

- Xanti Saizari Arostegi (Tolosa)
- Idoia Ormaetxea Ileta (Durango)
- Aitor Sangroniz Akarregi (Santurtzi)
- Eukeni Abasolo Galdeano (Gasteiz)

NAIROBITARRA


- Ainhoa Etxabe Chamorro (Ugao)
- Txebis Gorritxategi Gorosabel (Ermua)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



**Garaiko errealitatean
kokatuko zaituen denboraren orratza**

Oparitu **argia** harpidetza
independentzia astero ikusten da